

# HIRU, BI, BAT... EKIN!

*Pentsamendu kritikoaren garapena Haur Hezkuntzan  
dramatizazioaren bidez*

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Antunez Roncero, Andrea.

ZUZENDARIA: Zelaieta Anta, Edu.



2018-2019

## LAPURPENA

Jarraian, Haur Hezkuntzan pentsamendu kritikoa lantzeak duen eraginari buruzko azterlan bat aurkeztuko da. Atal teorikoarekin emango diogu hasiera lanari, pentsamendu kritikoa kontzeptu zabalaren hainbat definizio nagusi aintzat hartuz. Era berean, Haur Hezkuntzako Curriculumarekin ere kontuan hartuko dugu. Gainera, pentsamendu kritikoa oinarritzat izanez, beste hainbat kontzepturen azalpena egingo da, hala nola dramatizazioarena. Bestalde, pentsamendu kritiko eta sortzailearen arteko erlazioa azpimarratuko da, eta Haur Hezkuntzan jolasak duen garrantzia ikustaraziko da. Atal praktikoari erreferentzia eginez, gaiaren gaineko galdetegi bat proposatu zaie, ezaugarri ezberdinak dituzten Haur Hezkuntzako hezitzaileei. Galdetegian lortutako erantzunetan oinarrituz, emaitza nagusiak eta ondorioak irudikatu dira. Azkenik, lortutako informazioaren arabera, diseinu didaktiko bat aurkeztuko da, non dramatizazioa nahiz pentsamendu kritikoa lantzeko, garatzeko eta sustatzeko asmo argia ageri den.

**Gako-hitzak:** Haur Hezkuntza, pentsamendu kritikoa, pentsamendu sortzailea, dramatizazioa, jolasa.

## RESUMEN

A continuación se presentará un trabajo sobre la influencia que tiene el pensamiento crítico en Educación Infantil. Daremos comienzo al trabajo con la parte teórica tomando en consideración las definiciones más relevantes sobre el concepto complejo del pensamiento crítico. Al mismo tiempo, se tendrá en cuenta el Currículo de Educación Infantil. Además, basándonos en dichas definiciones acerca del pensamiento crítico, se explicarán otros conceptos como por ejemplo el de la dramatización. Por otro lado, recalcaremos la relación entre el pensamiento crítico y el creativo, y se hará ver la importancia del juego en la etapa infantil. En lo referente a la parte práctica, se ha propuesto un cuestionario relacionado con el tema a maestros y maestras de diversas características de Educación Infantil. Basándonos en las respuestas obtenidas en el cuestionario, se han plasmado los resultados y las conclusiones principales. Finalmente, según la información obtenida, se presentará un diseño didáctico con la finalidad clara de trabajar, desarrollar y fomentar tanto la dramatización como el pensamiento crítico.

**Palabras clave:** Educación Infantil, pensamiento crítico, pensamiento creativo, dramatización, el juego.

## **ABSTRACT**

This paper presents a work about the influence of critical thinking on Early Childhood Education. To begin with the theoretical part, main definitions of the topic will be provided. The curriculum of the stage is also going to be taken into account. Moreover, based on those definitions about critical thinking, clarifications and explanations of other concepts will be made such as the dramatization. On the other hand, we will relate critical thinking to the creative one and the importance of the play in this stage. Referring to the practical part, a questionnaire related to the topic has been proposed to educators of various characteristics of Early Childhood Education. According to the results of this questionnaire, the research has been developed and the conclusions have been captured. Finally, taking into account the information obtained, a didactic design will be presented with the purpose of working, developing and encouraging both dramatization and critical thinking.

**Key words:** Early Childhood Education, critical thinking, creative thinking, dramatization, play.

## AURKIBIDEA

1.	SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	2
2.	MARKO TEORIKOA.....	3
2.1.	PENTSAMENDU KRITIKOA .....	3
2.1.1	PENTSAMENDU KRITIKOA HAUR HEZKUNTZAN .....	6
2.2.	PENTSAMENDU SORTZAILEA.....	7
2.3.	PENTSAMENDUA ETA JOLASA .....	8
2.4.	DRAMATIZAZIOA HAUR HEZKUNTZAN .....	10
2.5.	CURRICULUMAREN AZTERKETA .....	11
3.	HELBURUAK.....	12
4.	METODOA .....	13
5.	EMAITZAK .....	17
6.	ONDORIOAK.....	21
7.	HOBETZEKO PROPOSAMENA: HIRU, BI, BAT...EKIN! DISEINU DIDAKTIKOA.....	22
7.1	SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	22
7.2	METODOLOGIA .....	23
7.3	HAUR HEZKUNTZAKO HELBURUAK .....	23
7.4	DISEINUAREN HELBURU DIDAKTIKOAK .....	24
7.5	EDUKIAK ETA OINARRIZKO GAITASUNAK.....	24
7.6	ANIZTASUNAREN TRATAERA .....	25
7.7	HIRU, BI, BAT... EKIN! DISEINU DIDAKTIKOAREN GARAPENA.....	25
7.8	EBALUAZIOA.....	35
8.	BALORAZIO PERTSONALA .....	36
9.	ERREFERENTZIAK .....	38

## ERANSKINAK

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun gure gizartea mundu globalizatu batean bizi dela agerian dago. Teknologia berriek pisu handia dute gure egunerokotasunean, eta Internetek bizitza eta pentsatzeko modua aldatu digula esan beharra dago. Informazio eta komunikaziorako teknologiek funtsezko rola dute gure pentsamenduaren garapenaren prozesuan, informazio ugari ahalbidetzen baitigute soilik klik bat eginez. Zaila da, beraz, informazio horren egiatasuna aurkitzea eta are gehiago informazio horren barnean azal daitezkeen iruzur eta gezurretatik aldentzea. Horregatik, haurrei txikitatik autonomiaz eta kritikotasunez pentsatzeko eta erabakitzeko baliabideak eman behar zaizkie. Saso eta Perezek (2003) "sociedad dialógica" aipatzen dute, izan ere, aurretik aipatutako komunikazio bide berri asko horiekin bat egiteko ezinbestekoa da elkarrizketa sustatzea eta era berean, gauzak eztabaidatzea eta zalantzan jartzea. Horrela, erabakiak hartzeko momentuan gure ezagutzak aberatsagoak bihurtuz eta kritikotasunerantz bideratuz.

Haur Hezkuntza gure gizartearen oinarria da eta, pentsalari kritikoak sortu nahi baditugu, etapa hau nabarmendu beharko dugu. Horretarako, haurren interesak kontuan hartu behar dira gauza berriak ikasteko grina piztuz eta, nola ez, baliabide kreatiboak emanez (Fernandez eta Feliu, 2017). Jolasa da haien ikasteko biderik gustukoena eta hori azpimarratuz eta emozioez baliatuz bide horretan gehiago sakondu nahiko nuke. Aldi berean, haurrentzat espazio egokiak eraikitzea eta testuinguru egokiak sortzea HHko funtzio nagusia dela kontuan izanik (Tonucci, 2004) dramatizazioa hautatu dut testuinguru original hezigarriak sortzeko.

Dramatizazioak haurren ehun hizkuntzak (Malaguzzi, 2005) ditu barnean hala nola, gorputz adierazpena, artea, hitzezko eta ez hitzezko komunikazioa, keinuak, sentimenduak... hauek denak sortu nahi ditugun pentsalari kritikoaren oinarriak izango dira, pentsalari emozionalak aldi berean eta haien nortasunaren eraikitze prozesuan protagonista bakarrak.

Aurten, *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorrean, dramatizazioaren bidez egin ditzakegun gauza hezigarriak ikusi ditut. Oso prozesu aberasgarria izanik, ezezagunak nituen baliabideak ikusiz eta landuz. Dramatizazioa, pentsamendua lantzeko bide interesgarria da, izan ere, irudimenarekin erlazio zuzenean dago beti, pentsamendu sortzailea landuz (Onieva-Lopez, 2011).

## 2. MARKO TEORIKOA

Ondorengo marko teorikoa sortzeko hainbat iturri erabili dira. Pentsamendu kritikoa kontzeptua ulertu eta barneratzeko asmoz, bost zatitan banatu da azterketa teorikoa: pentsamendu kritikoa, pentsamendu sortzailea, pentsamendua eta jolasa, dramatizazioa Haur Hezkuntzan eta curriculumaren azterketa.

### 2.1. PENTSAMENDU KRITIKOA

Lehenik, kontzeptu honen definizio sakon bat garatzeko asmoz, bere etimologia aztertu da. Pentsamendu hitza latinetik dator “*pensare*” eta imaginatu, hausnartu, ikertu, jabetu...esan nahi du. Beste aldetik kritikoa, grekotik datorrena “*kritikos*”; ekintza edo gauza onak, gaizakeriatik bereizten dituenari deritzo (Real Academia Española de la Lengua, 2019). Horrenbestez, kritikoa bereizten ikastearekin eta jakitearekin lotua ageri zaigu.

*Doxaren* (iritzien) munduan pentsamendu kritikoa definitzeko orduan gehienetan gauzak edo iritziak zalantzan jartzearekin edota eztabaidatzearekin erlazionatzen da. Aurretik bere etimologian aipatu bezala, berezko epai bat ematea izango litzateke. Kritikotasun hori ezinbesteko tresna da bizitzan zehar ezartzeko eta oinarrizko hezkuntzatik landu beharko litzateke (Zúñiga, 2014). Kultura Europarrean Sokrates dugu aitzindari gisa eta Platonen elkarrizketetan jasota dago bere pentsamendua. Elkarrizketetan zalantzan jartzen zuen dena eta besteei hausnartzeko galderak ere proposatzen zizkien. Pentsalari kritikoa izateko pertsonen arteko interesak sustatzen zituen ondorio berriak sortzeko eta aurretik ezarritakoa zalantzan jartzeko. Bakoitzak bere sinismenen baino haratago joateko gaitasuna garatzeko prozesua da pentsamendu kritikoa Sokratesentzat, bakoitzak arrazoimenaren mugak gaindituz aurrera joan ahal izateko baliabidea (Gredos, 2015).

Pentsamendu kritikoa autore garrantzitsu bat azpimamarratu behar bada, **Kant** (1724-1804) aipatu beharra dago, aro modernoko filosofo garrantzitsuenetakoa. Hasteko, *Arrazoi puroaren kritika* (1781) egiten du; zientzian eta matematiketan oinarrituz. Bere buruari galderak eginez eta izakien ezagutzen mugak eta aukerak bereiziz. “Todo nuestro conocimiento comienza en los sentidos, pasa por la inteligencia y termina en la razón” (30.orr.). Horrekin lotuta, geroago *arrazoi praktikoa* (1788) egiten du; izakiak arrazoidunak izanda ere, askatasunaz

eta lege moralez gidatzen garela esanez. Azkenik, *epaiketaren kritika* (1790) egiten du, sentimenduari erreferentzia eginez. Laburbilduz, Kantentzat ezer ez zen ona edo txarra bere baitan. Horrengan dugun borondateak bakarrik izango du islatzeko ahalmena (Hirschberger eta Ros, 2012).

**Deweyk** bestalde eta pentsatzeko gaitasun horretan ere murgilduz, besteei nola pentsatu behar duten ezin diezaiekegula esan mantentzen zuen, baina bai gaingiroki, gizakiak erabiltzen dituen pentsatzeko erak zeintzuk diren deskribatu zitezkeela. Hauetako batzuk, besteak baino egokiagoak direla esaten da, zergati horiek aurkitzen eta barneratzen dituen pertsonak, bere pentsatzeko era aldatzeko gaitasuna izango du. Pentsatzeko modu asko horien barnean, Deweyk *Reflexive thinking* deritzona aurkeztu zuen. *How to think* liburuan dioenez, pentsamendua buruko makineriatik at egongo balitz bezala hartzen bada, memoriatik, sormenetik, behaketetatik eta iritzi pertsonalitik aldentzen da. Burua gorputzarekin alderatzen du eta pentsamendu ariketak muskulu ariketekin, azken finean muskulu denak lantzean datza gorputzaren lanketa integrala (Dewey, 1910).

**Piagetentzat** ere, izakiek askatasunez erabiltzen dute pentsatzeko gaitasuna, baina azpimarrantzen duena bere garapenaren prozesua da. Izaki orok pentsatzeko gaitasuna garatzen du bere baldintza biologiko edota historiko-kulturaletan oinarrituta. Garatze eta egokitze prozesu horiek sustatzeko asmoz, izakiak goi-mailako funtzio mentalak sortzen ditu, hala nola memoria, arazoaren ebazpena, erabakiak hartzea, gauzen inguruko pertzepzioa sortzea etab. Horrela, pentsatzea izakiak duen berezko gaitasuna izanez. Honekin, munduaren norberak duen erlazioaren interpretazio eta irudikapen esanguratsua kritikotasunez eraikiz (Piaget, 1986).

Pentsamendu kritikoaren esparruko beste autore esanguratsu bat **Lipman** da. Bere ustez (1988), pertsonok prozesu kritikoaz baliatzen gara informazioaren garrantzia neurtzeko eta aztertzeko. Horrela, pentsamendu kritikoa tresna hobezin bat bezala hartzen du, oinarririk gabeko iritziak alde batera utziz eta hausnarketa ekitzak burutuz. Kritikotasunak, beste izakiek zuregan izan dezaketen eragina babesten duelarik. Aldi berean, norbere iritziak garatzeko laguntza ematen du Lipmanek, bakoitzak bere argudio eta arrazoiak sortzen, bakoitzaren garapen integralari garrantzia emanez. *"Nos protege contra el hecho de creer de manera*

*forzosa lo que nos dicen los demás, sin que tengamos la oportunidad de investigar por nosotros mismos"* (Lipman, 1988, 38.orr.)

Pentsamendua, arrazoizko eta zentzuzko prozesua dela eta izakien ekintza kognitiboak eraikitzen dituen dela dio Ortizek (2009). Honen bidez, gauza ezagunetatik abiatuz, ezezagunetara iristen gara gure garapen integrala sustatuz. Horregatik, pentsamendua izakietan ez da era arbitrarioan gertatzen baizik eta arazoei prozesu kognitibo sinpleekin aurre egiteko trebetasunik ez dugunean. Hau esanda, pentsamenduaren funtzio garrantzitsuena arazoen ebazpena dela esaten du Ortizek gauza berriak deskubritzean, kontzeptuak sortzean, gertakari zehatzen esentzia ulertzean eta barneratzean datzan prozesua dela esanez.

Baina, pentsatzen irakatsi daiteke? Aditu askoren ustez pentsamendua, errealitatea ulertzeko eta interpretatzeko bide autonomo bat da eta horregatik prozesu baten baitan ematen denez inguruak zuregan duen eragina ere funtsezkoa izango da (Montoya eta Gómez, 2008). Horren inguruan, Ortizek, pentsamendua oroitzapen soil bat ez dela dio, ezta sinismen, erantzun, iritzi edota ezarpen bat ere, baina pentsamendua garatzeko hauek kontuan hartu behar ditugula. Pentsamendua aztertzeko hainbat ikuspuntu egon daitezke, hala nola *pentsamedu gogoetatsua, sortzailea, zientifikoa edo kritikoa*.

Lehenengoan, *hausnartze pentsamenduan*, sinismen baten gogoeta aktiboa bultzatzen da, iraunkortasunez eta arduraz babesten dena eta aldi berean ematen diren ondorioak errespetatzen dituen. *Pentsamendu sortzaileak*, zerbait berriaren eraikuntzan parte hartzen du, originala eta bakarra dena. *Zientifikoa*, pentsamendu sortzaile eta metodikoa da. Azkenik, *pentsamendu kritikoa*, hausnartze pentsamenduarekin oso lotuta dago, baina zalantzan jartzen ditu ematen diren argudioak.

Askotan, pentsatzen irakatsi daitekeen galdetzen denean, ezetz esaten da. Hezitzaile askoren aburuz, pentsatzea ekintza natural bat da, arnastea edota digeritzea bezain naturala. Ortizen iritziz (2009), egia da pentsatzeko gaitasuna naturala dela, baina bere ikaskuntzaren ondorioz, gaitasun hori garatu daiteke.

Pentsamendua naturala da bai, baina **Chrobakentzat** (2017) pertsonok egoera



baten aurrean egiten dugun ebaluazio analitikoaren pentsamendu prozesua da pentsamendu kritikoa. Izan ere, kritikoki pentsatzeak abagune gehiago ematen ditu zure ingurua eta errealitatea interpretatzeko eta noski, epai pertsonala emateko. Aldi berean, kreatibitatea ere garatzen da prozesu honetan zehar, arazoen ebazpenarekin eta erabakiak hartzearekin batera. Pentsamendu kritikoa galderak egitearekin lotuta dago eta baita egoerak analizatzearekin eta ebaluatzearekin gero. Zaila da, beraz, pentsamendu kritikoren definizio orokor bat adostea, baina honek bere garapen osorako, hiru alderdi nagusi bete behar direla baieztatzen da: jarrera, ezagutzak eta pentsamendu trebetasunak. Amaitzeko, pentsamendu kritikoa arrazonamenduarekin lotzen da definizio orotan. Bakoitzak dituen ideak gidatzen ditu hauek ebaluatzen, errepatatzen ea ikusitakoarekin zer ulertzen duen jabetzeko. Beraz, pentsalariak kritikoa izango dira, beren kabuz pentsatzean lortzen dutenean (Chrobak, 2017).

### **2.1.1 PENTSAMENDU KRITIKOA HAUR HEZKUNTZAN**

*El pensamiento crítico en la escuela* liburuan Hugo Castellanoren (2007) aburuz egun, eskoletan azkar igarri daiteke nola pentsatzea geroz eta gehiago kostatzen zaie txikiei. Askotan gure sistemak ahalbidetutako oinarriengatik, eta besteetan haurrak ez daudelako motibatua eta ez dutelako barne interesik ekintza hau burutzeko. Haurrek dituzten “zergati” galderei, gizarteak eta haur hauen inguruan dauden pertsonen galdera horiei beraien bizitzen lehen egunetik era sinple batean erantzuten dizkiete. Eta erantzun sinple horiekin haurrek ez dute ekintzekin loturarik egiten. Horrela, eskolara iristen direnean eta LH hasterakoan motxila batekin hasten dira, eragin horren islapena dena (Castellano, 2007).

Álvarez-Uria, Tresserras, Zelaieta eta Vizcarraren aburuz (2015) pentsamendu kritikoa guztiz garatzeko, bizipenekin eta emozioekin lotu behar da. Bizitzako lehen etapa hauetan oso garrantzitsua da emozioekin ikastea, egunerokotasuna abiapuntu izatea eta ikaste prozesua errealitatearekin estu lotuta egotea.

Haur Hezkuntzan, gaitasun sozioemozionalen garapena ezinbesteko elementu bihurtzen da, horren bitartez umeek jarrerazko, ezagutzazko eta harremanezko argibideak ikasteko aukera edukiko baitute. Gaitasun horiekin batera, garrantzitsua da sormenarekin, komunikazioarekin eta pentsamendu kritikorekin lotutakoak ere lantzea (35.orr.)

Hezkuntzan ezinbestekoa da helburu pedagogikoei garrantzi handia ematea,

baina baita curriculuma uneoro kontuan hartzea ere, han haur bakoitzaren etapara egokitzeko baliabide eta mugak daude eta. Pentsamendu kritikoari dagokionez, Haur Hezkuntzan kompetentzia batean bideratzen da: ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. Horregatik, ezinbestekoa da honen azterketa egitea. Honen barnean Haur hezkuntzako ikasleen eta pentsamendu kritikoaren lotura egiten da. Definizioz, Eusko Jaurlaritzak onartutako curriculuma (2015) kontuan hartuz, informazioa ebaluatzea eta nola ebaluatu den adieraztea izango litzateke.

Iturrien fidagarritasuna, objektibotasuna, argitasuna, sormena, balio estetikoak, balio etikoak eta beste hainbat alderdi balora daitezke. Informazioa ebaluatzeko hartutako irizpidea, kasu honetan, argudioen eta arrazoibidearen logika erabiltzea da, baita horren pertsuasio-indarra ere (2.orr.).

## **2.2. PENSAMENDU SORTZAILEA**

Arte heziketa pentsamendu kritikoa pizten duen heziketa nagusienetariko bat bezala ulertzen da. Pentsamendu kritikoa lortzeko bidean, emozioak edota sentimenduen adierazpena garatu behar da, hausnarketa bultzatuz, interpretazioa areagotuz... **Reggio Emiliaren** ikuspuntua horrelakoa da; artearen eta sormenaren bidez bai pentsamendu kritikoa baita pentsamendu zientifikoa ere lortzen saiatzen dena. Aldi berean, komunikazioa bultzatzen du, balioak, talde lana eta eztabaida adibidez, etorkizunean gizarte libre eta demokratiko bat eraiki ahal izateko. Horregatik bere xede nagusia: haur kreatiboak heztea, kritikotasuna bultzatzea eta konpromisoa garatzea da. Gainera, inklusioa funtsezkoa da Reggio Emilia esparruan eta are gehiago behar bereziak dituzten haurrak kontuan hartzea. Azkenik, jolasa, haurraren 100 hizkuntzetako bat bezala hartzen dute eta oso bide aberasgarria da kritikotasuna lortzeko (Fernández eta Feliu, 2017). **Hezkuntza aktiboa** da Reggio Emiliaren sekretu baliotsuena. Honek, haurren garapen intelektual, emozional, sozial eta morala sustatzen ditu. Proiektuetan oinarritutako metodologia erabiltzen da, ingurua asko zainduz eta aldi berean honi garrantzia emanez. Heziketa metodo hau erlazioetan oinarritzen da, bakoitzaren baliabide eta trebetasunak kontuan hartuz. Denek gelan galderak egiten dituzte, denen artean erantzuteko asmoz, horrela pentsamendu kritikoa funtsezko tresna bihurtuz. Kreatibitateak eta askatasunak bat egiten dute haurraren garapen osoa lortzeko. Curriculumak ere ez da heziketa tradizionalen bezala azaltzen. Reggio Emilian ez dago haurrak bete behar duten curriculumik,

hezitzaileek erreztasunak ematen dizkiete ikasten ikasteko prozesuari ekiteko (Agut eta Hernando, 2015).

**Malaguzzik** hurrek ehun hizkuntza dituztela esaten du eta ikusten dutena baino haratago joaten direla dio. Honen xede nagusienetariko bat ikasleek esperientzia errealetatik ikastea da. Haur bakoitza ezberdina da eta horregatik besteekin erlazionatzeko bakoitzak duen era ezberdina da baita ere. Honetan oinarrituz, hezitzaileek behaketaz eta esperimentazioaz baliatuz, hurrek parte hartzeko, komunikatzeko eta ekiteko erak edo jokaerak deskubritu behar dituzte. Haurren ehun hizkuntzetan Malaguzzik hauek mundua interpretatzeko eta bere ideiak islatzeko dituzten forma ezberdinei ematen die garrantzia (Malaguzzi, 2005). Argi ikusten da kontzeptua bere poematan (Ikus eranskin 1).

Azkenik aipatu beharra dago, pentsamendu kritikoaren esparru sortzailea garatu ahal izateko pentsamenduaren berregituraketa egin beharko litzatekeela. Prozesu hori era afektibo batean egin behar da, arazoak analizatuz eta ebaluatuz. Era honetan, pertsona sortzaileak eta ezagutza esparru askotara iritsiko direnak sortuko dira (Paul eta Elder, 2005).

El pensamiento crítico es el proceso de analizar y evaluar el pensamiento con el propósito de mejorarlo. El pensamiento crítico presupone el conocimiento de las estructuras más básicas del pensamiento (los elementos del pensamiento) y los estándares intelectuales más básicos del pensamiento (estándares intelectuales universales). La clave para desencadenar el lado creativo del pensamiento crítico (la verdadera mejora del pensamiento) está en reestructurar el pensamiento como resultado de analizarlo y evaluarlo de manera efectiva (7.orr)

### **2.3. PENTSAMENDUA ETA JOLASA**

Jolasa “Atsegin edo atsedean hartzeko edozein jarduera, olgeta, joko (dirurik jokatzen ez dena) edo kirol. *Ez dira horiek haur-jolasak.*” bezala definitzen du Harluxet Hiztegiak (Euskaltzaindia, 2019). Aldi berean, RAEk, “Acción y efecto de jugar por entretenimiento”. “Ejercicio recreativo o de competición sometido a reglas, y en el cual se gana o se pierde.” bezala deritzo (RAE, 2019).

Jolasa, izan ere, eskubide bat da. Horrela azaltzen da 1959an egindako Haurren Eskubideen Aldarrikapenen Hitzarmenean. Jolasa, haurren eskubide garrantzitsu bat bezala aldarrikatuz eta askatasunez egin dezaketena gainera.

Zehazki, 31.artikuluak horrela dio: “*Los estados partes reconocen el derecho del niño al descanso y al esparcimiento, al juego y a las actividades recreativas propias de su edad y a participar libremente en la vida cultural y en las artes*” (Español, 2016). Azpimarratzekoa da aipatutako hitzarmen eta definizio hauetan “pentsamendu” edo “heziketa” hitza ez azaltzea. Jolasa baita aditu askoren aburuz, ikasten eta pentsatzen ikasteko bide egokienetarikoa. Izan ere, Ricardo Baquerok bere *Vigotsky y el aprendizaje escolar* (1996) liburuan, argi uzten zuen jolasak zuen papera ikaskuntza eta garapen esparruan. **Vigotsky**rentzat, jolasa da haurren ekintza nagusia. Horrekin haurraren bizitzan, jolasaren funtzio garrantzitsua azpimarratzen da. Aldi berean, kulturaren haurrek parte hartzeko bidea da, ondoren helduek lanaren bidez egingo dutena. Gainera autoreak, Garapen Hurbileko Eremuaren (GHE) eta jolasaren arteko erlazio interesgarria jorratzen du, Vigotsky abiapuntutzat hartuz. Garapen Hurbileko Eremua (GHE), haurrak berez dituen trebetasun eta abileziak eta beste batek irakatsiz ikasi ditzakeen arteko erlazioa egiten du, jolasa honen garapenean funtsezko oinarria dela aitortuz (Baquero, 1996).

Bestalde, ezinbestekoa da jolasaren arloan **Piageti** erreferentzia egitea. Izan ere, berarentzat jolasa hasierako faseetan sortzen eta eraikitzen da. Asimilazioaren bidez definitutako jokaerak dira (imitazioak bultzatuta). Adimenarekin ikasitako jarrera guztiak alda daitezke jolas bihurtuz, asimilazioaren bidez errepikatuak direnean (plazer funtzional bezala) (Piaget, 1973). Javier **Abadek**, berriz, ekintza ludikoa terminoa erabiltzen du, bi terminotan ezberdintzen dituena: *game* (jolas antolatua) eta *play* (araurik gabeko jolasa). Lehenengoa oso zabala da eta oihartzun handia du, bigarrena ordea, garatze prozesuan dago arte esparruan bereziki Haur Hezkuntzan (Abad, 2011).

**Freudek** bere analisisien ostean, haurrek jolasetan haien bizi motzetan bizitako esperientzia sakonak errepikatzen zituztela esaten zuen. Horrela haiek, egoerataz arduratzen ziren berriro. Halaber, haurtzaroko jolas orok adineko menderatzaile grina ikusten du; helduak izateko nahia eta handiek egiten dituzten gauzak egiteko ahalmena islatuz (Freud eta Strachey, 2002).

Pentsatzeko eta izateko funtsezko era da jolasa, **Tonuccik** bere *La ciudad de los niños* (2004) dio, zein garrantzizkoa den haurrentzat espazio egokiak eraikitzea

eta testuinguru aproposak sortzea; izan ere, hori da HHko funtzio nagusienetarikoa. Jolas tradizionalen aldarrikapena egiten du eta gaur egungo jolasteko erari eta emaneko baliabideei kritika sakona egiten die. Gainera, hausnartzera eramaten gaitu gaur egungo hirien eta haurren talken eta egokitzapen faltaren inguruan. Aldi berean, haurtzaroa haurrentzat etapa aske bat da, betebeharretatik at, non jolasak, dibertsioak, miatzeak eta afektu eta onarpenek eginkizun garrantzitsuena duten.

#### **2.4. DRAMATIZAZIOA HAUR HEZKUNTZAN**

“Teatro” hitza, latinetik dator *theatrum* eta hau grekotik *teamai* begiratzeko lekua esan nahi duena. Drama bestalde, latinean jatorria duen hitza da eta tristurarekin erlazionatutako genero literarioarekin lotuta dago bere esanahia. Gai serioak jorratzen dira eta ikusleria hunkitzea du xede nagusizat. Gainera, jendaurrean antzezteko egina dago. Antzerkiaren jatorria erritu erlijiosoetan aurki dezakegu, dantzen eta abestien irudikapenaren bidez jainkoekin harremanetan jartzen ziren. Geroago, mendebaldeko antzerkiak, greziar kulturak, haien tragi-komediekin beste ikuspuntu bat emango zioten munduari (Garcia, 1992).

Aipatzekoa da Leon **Chancerel**eren (1963), gazte antzerkigintzaen aintzindariak, antzerkia eta hezkuntzaren arteko erlazioaren iritzia. Izan ere, herriaren aurrerapenerako bide bat izan zitekeela esaten zuen, kulturaren garapenerako baliabide aberasgarria. Hezkuntzan, dramatizazioak giroan eta haurrengan askatasuna eta segurtasuna biltzen du, honen bidez adierazpen askatasuna sustatuz. Haur Hezkuntzako ikasleek sentimendu bat adierazten badute eta kideei sentimendu hori transmititzea lortzen badute, dramatizazioaren esanahi indartsuenetakoa eskuratu dugula esan genezake, hau da: sentimendu baten adierazpenaren bidez gainontzekoekin komunikatzea (Delgado, 2011). Komunikazio horretan oinarrituz, Cañasek (2009) haurrengan garapenerako antzerkigintza adierazpen forma egokienetariko bat dela dio. Gainera, jolasera bideratuta egon beharko litzatekeela baieztatzen du “[...] si realmente la expresión dramática es una de las formas más completas, habrá que añadir que ésta tiene que estar basada, básicamente, en un concepto esencial...el juego” (Cañas, 2009, 18.orr.).

Haur Hezkuntzan zehar, gorputza da komunikatzeko eta adierazteko baliabide garrantzitsuenetarikoa, hitzekin oraindik esan ezin daitekeena islatu dezake eta. Haur

Hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte), bereziki, gorputza da mundua arakatzeko eta esperientziak izateko abiapuntua (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Vizcarrak (2008, 246.orr) bere lanean esan zuenaren arabera, “gorputz-adierazpena; gorputza erabiltzea, barneratzea, bilatzea eta onartzea da. Gorputza erabiliz; emozioak, ideiak, pentsamenduak, sentipenak, sentimenduak eta bizipenak adierazten dira, betiere, sormena aurretik jarrita”. Honi lotuta, Cañasek (2009) adierazpen dramatikoaren alternatiba liberatzaile bat bezala proposatzen du. Lehen urteetako jolasa adierazpenaren garapenari laguntzen dio eta horregatik jolas hori funtsezkoa da. Ez da bakarrik ekintza kreatibo batean bilakatu behar baizik eta entzute eta harmen prozesu batean zeinetan besteak onartzen dituzten.

Amaitzeko, dramatizazioa pentsamendua asko lantzen duela aitortzen du Purificación Cruz Cruzek (2014) eta barne hartzen dituen baliabideaz hitz egiten du bere artikuluan.

La dramatización utiliza como principal herramienta el propio cuerpo: sus movimientos, sus gestos, sus palabras acompañadas de entonación y comunicación no verbal, su intencionalidad, su ritmo, sus temores escondidos tras una máscara, sus sueños, sus deseos, sus necesidades (110 orr.)

## **2.5. CURRÍCULUMAREN AZTERKETA**

Haur Hezkuntzako gaitasun orokorretan murgiltzen bagara, hauexek dira etapa guztian zehar ageri direnak (Eusko Jaurlaritza, 2015, 12.orr.):

1.- Arduraz bizitzen ikastea.

**2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea.**

**3.- Komunikatzen ikastea.**

4.- Elkarrekin bizitzen ikastea.

5.- Pertsona gisa garatzen ikastea.

6.- Egiten eta ekiten ikastea.

Aipatutako gaitasunetatik, bi izango dira lan honetan gehien jorratuko direnak: *ikasten eta pentsatzen ikastea eta komunikatzen ikastea*. Pentsamendua lantzen, haurrek pentsatzen ikasiko dutelako eta era berean, komunikazioa lantzen, pentsatzen dutena adierazten ikasiko dutelako.

Adierazteko erei dagokienez, gorputz adierazpena ere bereizi behar dugu horregatik, garrantzitsua da lehen egindako dramatizazioaren eta HHren arteko lotura

kontuan izatea. Honek, funtsezko papera duelako etapan, ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna garatzeko. Haur Hezkuntzako komunikatzeko funtsezko bidea izanik: “EAEko Haur Hezkuntzako curriculumean Gorputz Adierazpena dago Hizkuntzen ikasketen esparruan” (Álvarez-Uria, Tresserras, Zelaieta, eta Vizcarra, 2015, 60.orr).

Curriculumean aipatzen den eran, “HHren helburu nagusia ikaskuntza funtzional eta adierazkorrak egiteko testuinguruak ziurtatzea da” (11.orr.). Horrek esan nahi du etapa honetan beharrezkoa dela laguntza eskaintzea ikaskuntza hori barneratu ahal izateko. Aldi berean, pentsatzen ikas dezaten hainbat baliabide eta kompetentzia garatzeko grina ahalbidetu behar zaie haurrei. Esate baterako, informazioa bilatzeko tresnak, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa (baita digitala ere) lantzeko kompetentzia, pentsatzeko eta norbera izaten ikasteko kompetentzia etab. Azkenik, azpimarratzekoa da curriculumean agertzen diren Haur Hezkuntzan garatu beharreko hiru pentsamendu motak: ulerkorra, kritikoa eta sortzailea. Aipatutako hirurak, harreman zuzenean daude beti. Haurrek egoera ezberdinei aurre egiteko baliabideak sortzen eta garatzen joaten direlarik. Izan ere, 237/2015eko Abenduaren 22ko dekretuan pentsamendu mota horiek garatzeko baliabideetako bat aipatzen da: haurrek errealitatearekin eta haien inguruarekin duten interakzioaren garrantzia (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Horregatik, oso garrantzitsua da pentsamenduaren lanketa sustatzea bizitzako lehenengo urteetan. Izan ere, hauek izango dira etorkizunean izango diren pertsonen oinarri. Kritikotasunez pentsatzerakoan haien iritzi propioa izango dute eta bide askoren artean hautatzeko abagunea.

Oinarrizko Hezkuntzan zehar prestatu behar dira belaunaldi berriak helduarorako, oinarri sendoak emanaz bizitza osoan zehar ikas dezaten eta gai izan daitezen norberaren bizitza zentzuz bideratzeko, norberaren destinoak hautatzeko, norberaren aukeren arduraren hartzeko eta gizartean integratzeko, modu aktibo, kritiko eta arduratsuan (Eusko Jaurlaritza, 2015, 8.orr.).

### **3. HELBURUAK**

Garai guztietan bizi izan diren izakietatik guri egokitu zaigu informazioaren garaian jaiotzea. Zorte onekoak izan gara alde horretatik, baina informazio hori

guztia kudeatzen ikasi behar dugu. Gauzak zalatzen jartzen ikasi, autonomiaz jokatu, iritzi propioak eraiki... laburbilduz, kritikoak izan behar gara. Baina, zer da kritikoak izatea?

Galdera horri erantzuna ematea da lan honen helburu nagusia. Pentsamendu kritikoa zer den aztertzea eta honen eta Haur Hezkuntzaren arteko lotura egitea. Aipatutakoaz gain, dramatizazioa Haur Hezkuntzan duen garrantziaz jabetzea, eta honen bidez pentsamendua landu daitekeela konturatzea. Bestalde, nire irakasle etorkizunean, kritikotasuna lantzeko baliabide interesgarri bat bezala ikusi nahiko nuke lan hau.

Horrez gainera, egitasmoak Haur Hezkuntzako geletan *pentsatzen ikasteko konpetentzia* eta *komunikatzen ikastekoa* lantzea du xede; helburu nagusi horretara iristeko, beste azpi-helburu batzuk azpimarratuz:

- ✚ Autonomiaz jokatzeko
- ✚ Gauzak zalantzen jartzea
- ✚ Ingurua ulertzen saiatzea
- ✚ Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ezberdinak eta barneratzea

#### **4. METODOA**

Lanaren metodoa datuak jasotzean eta interpretatzean datza. Azterlan hau garatzeko asmoz galdetegi bat proposatu da. Galdetegi honen helburu nagusia da Haur Hezkuntzako irakasleek pentsamendu kritikoarekiko dituzten jakintzak zeintzuk diren aztertzea.

Galdetegiaren egiturari dagokionez, honako atal hauek nabarmendu beharrean gaude (Ikus eranskin 2):

- Hasierako agurra, azalpenekin eta jarraibideekin.
- Irakasleen datuak biltzeko aukera anitzetako galderak (generoa, adina, ikasketak, hezkuntza arloan emandako denbora).
- Pentsamendu kritikoaren definizio bat, galdera ireki baten bidez.
- Bederatzi galdera, horietako zortzi *Likert eskala* erabiliz eta bat, adin tartekak azalduz.
- Gainera, baiezko eta ezezko galdera bat proposatu da.



- Azkenik, beste bi galdera ireki daude: bat, arazoren bat egon bada azaltzeko eta bestea, zer edo zer gehiago eransteko.

Datuen analisia era kualitatibo batean gauzatuko da. Asmo nagusia da, datu narratiboen bidez gertakari baten ezaguera sakona eskuratzean eta azaltzean datza (Bustingorry, Tapia, eta Mansilla, 2018). Alde horretatik, diseinu eta metodoa malgua da, izan ere, azterlanaren garapena baldintza orokorretan zehazten du. Bestalde, datuak biltzeko estrategiei dagokienez, hainbat azpimarratu ditzakegu, hala nola dokumentuak biltzea, behaketa parte-hartzailea, galdetegiak eta elkarrizketa informalak egitea. Datuak interpretatzeko orduan, ondorioak eta berrikustek azterlana egin ahala garatzen dira normalean beste batzuetan espekulatiba orokortuak ematen dira (De Pelekais, 2000).

Galdetegia, hainbat ikastetxetako irakasleri proposatu zaie, hala nola Donostialdeko Lezo Herri Eskolako, Jesuitak ikastetxeko, Pasaia-Lezo Lizeo ikastolako eta Altza eskolako Haur Hezkuntzako irakasleei. Inkesta, 2018ko abendu hasieran bidali zen e-mailez eta 2019ko urtarrila amaierara arteko epea eman zen erantzuteko. Epea amaitu ondoren, guztira, 36 galdetegi jaso ziren.

## **BERRIEMAILEN PROFILA**

**Generoari** erreferentzia eginez, laginaren %86,5 emakumeak izan direla aipatu beharra dago, gizonezkoak bitartean, laginaren %13,5 izanez. Ez da irakasle ez-binariarik egon. Hezkuntza Ministeritzako datuak berreskuratuz (2016-2017) Espainian, urte horretan zeuden HHko 54.530 irakasleetatik 53.213 emakumeak ziren, bai eskola publiko baita pribatuak kontuan hartuz ere. Gizonezko irakasleak %2,41a bakarrik izanez. Era berean, EAEn, urte berdinean, HHko emakume irakasleen ehunekoa 97,5 izan zen. Datuetan oinarrituz (Ministerio de educación, 2017), herrialdean emakumezko irakasleak askoz gehiago direla ikus daiteke.

Bestalde, **adinari** dagokionez 20-30 adin-tarteko irakasleak izan dira gehiengoak galdetegia erantzuten, %40,5 zehazki. 30-40 adin-tarteko irakasleek jarraitzen diete (%24,3). Horri lotuta, partaide gehienek 5-10 urte daramatzate hezkuntza arloan lanean. Horregatik, lagina gaztea dela esan daiteke. Datuei erreparaturik, Espainia mailan, Hezkuntza Ministeritzak (EDUCAbase) 2016-2017 ikasturteko irakasle ez-unibertsitarioak 688.466 zirela esaten du. Hauetatik, 48.427

30 urte beherakoak dira eta 30-40 tartekoak berriz, 191.280. Adierazgarriak dira 40-49 tarteko datuak: Guztira 211.290 irakasle baiziren adin-tarte horretan. Aldi berean, azpimarratzekoa da 50-59 adin-tartea, 199.010 irakasleekin (Ministerio de Educación, 2017).

Azkenik, **ikasketei** erreferentzia eginez, %81,1ek unibertsitatean burutu dituzte haien ikasketak laginaren gehiengoa izanez, beste %18,9ak, lanbide heziketako ikasketak edota beste ikasteta batzuk gauzatu dituztelarik. Aurrekoa kontuan hartuz ez da harritzekoa gehiengoak unibertsitateko ikasle ohiak izatea, izan ere, ikasleek Haur Hezkuntzako ikasketak burutzeko momentuan, gradua osatuagoa dela baieztatzen dute (Vara, 2016). Asko dira gradua eta goi mailako zikloaren arteko ezberdintasunak hala nola, bereizgarriena, HHko 1.zikloan irakasle izateko 2 urteko ikasketak burutu behar direla (goi mailako zikloa) eta HH osoan irakasle izateko, ordea, 4 urteko graduaren garapena egin behar dela.

## **IKASTETXEEN DATU ESANGURATSUAK**

### ✓ **Jesuitak Donostia ikastetxea**

**Jesuitak Donostia** itunpeko ikastetxeko 7 HHko langileei egin zaie galdetegia. Jesuitak ikastetxean 2 urtetatik 18 urte bitarteko ikasleak hezten dira. Solidaritatearekin eta bihotzarekin jarduten duten pertsonak sortzea da haien nahia. Ikasketa aktiboan oinarritzen dira; ikasleak euren ikasketa-prozesuaren protagonistak izaten. Irakaslearen papera funtzezkoa da, ikasleen jakinmina piztean datza, hauek inspiratuz, motibatuz eta besteei laguntzeko pertsonak heziz. Horrela, inguratzen duten errealitateaz kontzientzia hartuz eta errealitate hori aldatzeko gaitasunak sustatuz. Ikastetxea Kristau Eskola da, hortaz, Erlijioa eta ekintza erlijiosoa ematen dira ikasgai gisa eta elizaren eta bereziki, Arrupe aitaren baloreak errespetatzen dituzte eta haurreei transmititzen saiatzen dira (Colegio San Ignacio, 2019).

### ✓ **Pasaia-Lezo Lizeoa ikastola**

**Pasaia-Lezo Lizeo** ikastolako 13 hezitzaileei egin zaie inkesta. Lezon kokatzen da, Gipuzkoako ipar-ekialdeko udalerrian. Oiartzualdeko eskualdean dago, Errenteriarekin, Pasaiarekin eta Oiartzunekin batera. 6.500 biztanle zituen 2018.urtean. Lizeo ikastola, ikastolen elkarteen barruan kokatzen da. Euskal Herri osoan daudenak, herrietan, bereziki, txertatuak. Eskaintza integrala ematen da 0

urtetik hasita, Batxilergoraino. Hezkuntza eredu propioa du; ikasmaterialen sorkuntzan eta irakasleen prestakuntzan aitzindari izateaz gain, etengabe lanean jarraitzen dute hobekuntzan. Pedagogia aurreratu eta aurrerakoia da oinarri; euskal curriculum ardatz izanez. Hezkuntza euskalduna eskaintzen da eta Informazio eta Komunikazio Teknologiaren erabileran aitzindari dira. Horregatik, Lizeoren ezaugarriak, ikastolen ezaugarriekin egiten dute bat hala nola, euskara, euskal kultura eta unibertsaltasuna lotzen ditu, pedagogia aurrerazalea eta kooperatiboaren jarraitzaile izanez (Pasaia Lezo Lizeoa IKE, 2013).

#### ✓ **Lezo herri eskola**

Aurreko ikastola bezala, **Lezo herri eskola** Lezo herrian kokatzen da eta ikuspuntu konstruktibistan oinarritzen da. Hemengo 10 irakasleri egin zaie galdetegia. Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik LHko seigarren mailara artekoa da bere eskaintza. Eskola publiko honek ikasleen ikaste-irakaste prozesua hurrengo ildo pedagogiko hauetan oinarritzea funtsezkoa dela islatzen du, hala nola elkarekintza sustatzea besteeiko errespetua plazaratuz, egokitzapena eta inklusioari garrantzia emanez, garapen indibiduala bultzatuz eta bakoitzaren ezagutzak baliogarriak direla azaldu ikaskuntza esanguratsua izateko, motibazioa emanez Ikasten ikasiz... Aldi berean, irakaslea ikaskuntzaren bitartekaria da eta prozesuaz jabetzen da, baina autonomia guztiz jarduten dute haurrek prozesu horretan. Azkenik, Euskal kulturari oinarritzen du bere ikaskuntza era honetan beste kulturak ere ikasiteko baliabidea izanik (Lezo Herri Eskola, 2019).


#### ✓ **Altza Herri Ikastetxea**

**Altzako herri ikastetxeko** 6 irakasleri egin zaie galdetegia. Altza, Donostiako auzo bat da gaur egun eta 2-12 urte bitarteko eskaintza dute. Bere hezkuntzan programan hainbat tailer bereizten dituzte hala nola, irrati eta prentsa tailerrak, hasien tailerra, eskola baratza etab. IKTei ere garrantzia ematen diete, 4urtetik aurrera eskaintzen dute eta Eskola 2.0 programan ere parte hartzen dute. Familiekin harreman estua izan nahi dute funtsezkoak baitira haientzat gurasoen iritziak. Horregatik haientzako ere, orientazioak eta euskara programak egiten dituzte. Aniztasunerikiko trataera, inklusioa eta inguruarekiko errespetua garatzen dituzten ikasleak sortzea da haien nahia eta aldi berean kritikoki errealitateaz ohartzea (CEIP Altza, 2019).

## 5. EMAITZAK


Atal honetan galdetegian lortutako datuen emaitzak islatuko dira, irakasleek emandako erantzunak azalduz.

- ◆ **HHn zenbat lantzen da pentsamendu kritikoa?** Bildutako datuetan oinarrituz eta Likert eskala erabiliz, HHn pentsamendu kritikoa nahiko lantzen da berriemaile askoren iritziz. Zehazki, 36 berriemaileetatik 15ek dute iritzi hori (%42). Neurri batean edo bestean irakasle guztiak uste dute Haur Hezkuntzan pentsamendu kritikoa lantzen dela, ez dago inor lantzen ez dela pentsatzen duenik (ikus 1.grafikoa).



1 .Grafikoa: HHn pentsamendu kritikoaren lanketa


- ◆ **Zer nolako garrantzia izan dezake haur batentzat pentsamendu kritikoa lantzeak?** Berriemaileen ustez, oso garrantzitsua da haur batentzat kritikotasunera bideratzen den pentsamendua lantzea. Partaideen gehiengoak erabateko garrantzia duela adierazi dute (%68) bestalde, gutxi izan dira garrantzi hori era xume batean adierazi dutenak (%8) (ikus 2.grafikoa).



2. Grafikoa: pentsamendu kritikoaren garrantzia


- ◆ **Zer nolako eragina du inguruak eta kasu honetan, eskolak, pentsamendu kritikoaren garapenean?** Jasotako datuetan oinarrituz eta partaideen iritzia kontuan hartuz, eskolak haurretan duen eragina esparru honetan oso handia dela esan daiteke, haien garapen prozesuan egunero parte hartzen baitu.

Berriemaileen %37 erabateko eragina duela diote, %42 oso altua dela eta %21a berriz, erlazioa dagoela esaten dute, baina ez dute asko nabarmentzen. (ikus 3.grafikoa).




3. Grafikoa: pentsamendu kritikoaren garrantzia

- ◆ **Lantzekotan, ze urtetik aurrera uste duzu lantzen dela pentsamendu kritikoa HHn?** Ikusi daitekenez, pentsamendu kritikoa gehienbat 4-5 urtetatik gorako hurrekin landu daitekeela esan dute partaideen erdiak, Lehen Hezkuntzan pentsamendu kritikoaren garrantzia nabarmenduz. Emaizak kontuan hartuz, oso partaide gutxiak (%17) uste dute pentsamendu kritikoa bizitzako lehen urteetan lantzen dela (ikus 4.grafikoa).



4. Grafikoa: Ze urtetatik aurrera?


- ◆ **Pentsamendu kritikoak pentsamendu sortzailearekin loturarik al du?** Berriemaileen erantzunei erreferentzia eginez, pentsamendu kritikoa eta sortzailea erlazio zuzenean daudela pentsatzen dute gehienek (28 perts.). Bestalde, %22 (8 perts.) ez dira erlazioaz guztiz edo gehienbat jabetzen (ikus 5.grafikoa).



5. Grafikoa: pentsamendu kritikoak pentsamendu kreatiboarekin loturarik al du?

- ◆ **Pentsamendu kritikoak autonomiarekin lotu daiteke?** pentsamendu kritikoaren eta autonomiaren arteko erlazioa argi dute berriemaile gehienek (%85). Berriemaileen erdiak baino gehiago (%62,9) estu lotuak daudela uste dute (ikus 6.grafikoa).


Pentsamendu kritikoa autonomiarekin lotzen duzu?



6.Grafikoa : pentsamendu kritikoa autonomiarekin lotu daiteke?

- ◆ **Dramatizazioaren bitartez pentsamendu kritikoa landu daiteke?** Partaide gehienek aburuz dramatizazioa baliabide oso interesgarri bat izan daiteke pentsamendu kritikoa garatzeko. Izan ere, galdera erantzun dutenen %78 oso nota altuarekin (5/4 eta 5/5) baloratu dute dramatizazioa pentsamendu kritikoa garatzeko baliabide gisa (ikus 7.grafikoa).

Dramatizazioaren bitartez...




7.Grafikoa : dramatizazioa pentsamendu kritikoa lantzeko baliabide gisa

- ◆ **Zure ikasketak kontuan hartuz, baliabide egokiak ahalbidetzen direla uste duzu alor hau jorrazteko?** Datuetan ikusi daitekenez era askotako erantzunak daude; alde batetik, %8,6k ikasketek, pentsamendu kritikoa lantzeko baliabiderik ez dizkietela eman aitortu dute. Bestalde, %25,7 baliabide gutxi eman dizkietela esan dute. Azkenik, berriemaile gehienek, alor hau jorrazteko haien ikasketek baliabide nahiko egokiak ahalbidetu dizkietela esan dute (%65,8) (ikus 8.grafikoa).



8.Grafikoa : Zure ikasketak kontuan hartuz, baliabide egokiak ahalbidetzen direla uste duzu alor hau jorrazteko?

- ◆ **Arazoren bat izan duzu galderak erantzuteko?** Orokorrean, galderak erantzuteko arazorik izan ez dutela ikusi daiteke (9.Grafikoa). Baiezko erantzuna eman duten berriemaile gutxi horien artean (3 pertsona) kontzeptua definitzeko zailtasuna eta gaiarekiko ezagutza eta baliabide eza azpimarratzen dituzte arazo gisa.



9.Grafikoa : Arazoren bat izan duzu galderak erantzuteko?

## 6. ONDORIOAK

Emaitzak kontuan hartuz, eta literatura zientifikoa gogoan, hainbat ondorio atera daitezke. Beraz, horiek azalduko ditugu jarraian.

**Lehenik, pentsamendu kritikoaren terminoa definitzeko** berriemaileek izan duten **zailtasuna** azpimarratu behar da. Askok, pentsamendu kritikoaren oinarriak aipatu dituzte hala nola, autonomia, iritzi propioa izatea, gauzak zalantzan jartzea, hausnartzeko gaitasuna edota, egoerak ebaluatzeko trebetasuna (Paul eta Elder, 2005). Alabaina, definizio bakoitza bereizten bada, orokorrean osatugabe daudela ikus daiteke eta, beraz, gaiarekiko informazio falta dagoela islatzen da.

Bigarrenik, gehienek **HHn pentsamendu kritikoa nahiko lantzen dela pentsatzen dute, horren garrantzia azpimarratuz eta eskola** garapen horretan, **funtsezko baliabide bat dela azalduz**. Izan ere, hezkuntza, balio kultural, etiko eta estetikoaren transmisioa ahalbidetzeko baliabidea da. Horrekin batera gizakiak arazoak gainditzeko metodoen bilaketa egin behar du eta ezkorak ezeztatu, emaitza eraginkorrak aurkitzeko asmoz. Bide horien prozesua da garrantzitsuena pentsamendua lantzeko eta bide horren amaieran lortuko den “izaki ideala” lortzeko. Hezkuntza sistemak gizartearen beharrak identifikatu eta asetzen saiatu behar da, betiere etorkizunera begira aurrerapen soziala sustatzeko (Ortiz, 2011).

Beste ondorio esanguratsu bat da, berriemaileen ustez, **pentsamendu kritikoa lantzen hasten den adina**: 4-5 urteetatik aurrera eta, beste askok, ia 6 urteetatik aurrera, Lehen Hezkuntzan alegia. Murillok eta Santosek (2018), berriz, arrazoizko ikerketako trebetasunarekin eta analisi kritikoarekin jaiotzen garela diote; hala ere, egoki lantzen ez bada, galtzen dela baieztatzen dute. Horregatik, ezinbestekoa da ikasketa-estrategia egokiak bultzatzea, hauen bidez pentsamendu kritikoaren errefortzua eta trebetasuna garatuko direlako. Ikasketa-estrategia hauen artean Murillok eta Santosek (2018) antolatze, elaborazio, meta-kognitibo eta hezkuntza inguruko ikasketa estrategiei buruz hitz egiten dute.

Azpimarratzekoa da, era berean, nola partaide gehienek esan duten **pentsamendu kritikoaren eta autonomiaren arteko erlazioa** handia dela. Izan ere, hezkuntzaren funtzio nagusia ez da esparru zehatz askoren inguruan gauza asko erakustea, baizik eta ikasten ikastea eta ikasleei autonomia intelektualala garatzen laguntzea (Jones eta Idol, 1990, Lópezek aipatua, 2012). Horregatik funtsezkoa da



autonomia hori pentsamendu kritikora bideratzea: zenbat eta kritikoagoak izan, orduan eta autonomoagoak izango baitira ikasleak.

Bestalde, **pentsamendu sortzailearekiko erlazioari buruzko iritziak era askotakoak** izan dira, asko loturaz erabat jabetzen ez direla islatu baita emaitzetan. Aurretik aipatu bezala, kreatibitateak eta askatasunak bat egiten dute haurren garapen osoa lortzeko (Agut eta Hernando, 2015). Horregatik, ezinbestekoa da lotura horiek esplizituki egitea, artea eta emozioen bidez hezkuntza aktibo eta kritikoa sortzeko.

Azkenik, partaideek **dramatizazioa pentsamendu kritikoa garatzeko bide posible bat** bezala ikusten dute. Espainian, hainbat atzerki konpainia daude Haur Hezkuntzarako ikuskizunak egiten dituztenak. Baina nabarmentzekoa da Baychimo teatrok *Cultivando miradas* proiektuarekin 2016. urtetik aurrera egiten duen lana. Izan ere, antzerki konpainia berritzaile honek dramatizazioa pentsamendua lantzearekin lotzen du (6 hilabeetatik aurrerako haurrentzat). “A través del juego, implicamos a los niños, damos claves para que jueguen con nuestras propuestas teatrales. No para que las acepten sin más, sino para que hagan de ellas lo que quieran...”. (Baychimo teatro, 2019, 1.orr.).

## **7. HOBETZEKO PROPOSAMENA: HIRU, BI, BAT...EKIN! DISEINU DIDAKTIKOA**

Ondorioak kontuan hartuz, dramatizazioaren bidez pentsamendu kritikoa garatzeko diseinu didaktiko bat proposatuko da, esparrua landu nahiz sakontzeko eta aurretik ikusitako gabeziak asetzen saiatzeko.

### **7.1 SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Azalduko den diseinu didaktikoa *Hiru, bi, bat... ekin!* deitzen da. Justifikazioari dagokionez, hainbat alor landu nahi izan dira bere garapenarekin ondoren ikusiko direnak. Proposamen honen xede nagusia honakoa da: HHko ikasleek dramatizazioaren bidez eta honek eskaintzen dituen adierazpen eta komunikazio baliabideen bitartez pentsamendu kritikoa garatzea.

Proposamen hau hurrei antzerkiaren, dramatizazioaren eta arte eszenikoekin zerikusia duten tresna eta baliabideak eskaintzean datza, arte era guztiekin erlazioan sustatuz. Haur ulerkorak, sortzaileak eta kritikoak (Eusko Jaurlaritza, 2015) lortzeko

ezinbestekoa da esparru artistikoan oinarritzea. Aldi berean, ezinbestekoa da kontzeptuak transmititzeko gaitasuna garatzea, eskakizun maila handituz eta esperientzia aberasgarriak ahalbidetuz. Azkenik, erreferenteak izanez, kontzientzia kritikoa lortuz eta errealitatearen irudikapen pertsonala izatera iritsiz, pentsalari paregabeak sortuko dira kontzeptuak transmititzeko gaitasunarekin.

## 7.2 METODOLOGIA

**Programazioari** dagokionez, HHko 2.ziklora bideratuta dago, zehazki, 5-6 urteko haurrentzat egokitua. Metodologia aktiboa erabiliko da, Reggio Emiliako hezkuntzan oinarrituta. Hemen, ikasten ikasteko prozesua haur bakoitzari egokitzen zaio, curriculum jarraituz, baina betiere era malguan eta hurrei egokituz (Agut eta Hernando, 2015). Gainera, garapen integrala lortzeko bidea denez, emozioekin eta egunerokotasunarekin ikasiko dute hurrek hau funtsezkoa delarik. Dramatizazioaren bidez gai eztabaidatsu eta askotan HHn tabu kontsideratzen direnak landuko dituzte. Era honetan, haien pentsamendu kritiko hori sustatzeko asmoz jarduerak amaitzerakoan alderaketa egingo da.

**Denbora eta espazioari** erreferentzia eginez, hilabete batean zehar gauzatuko dira. Guztira, zortzi jarduera dira, eta aste bakoitzean bi egingo dira. Jarduerak aurrera eramateko ohiko gela, psikomotrizitate gela edo patioa eta musika gela erabiliko dira (Ikus eranskin 3).

## 7.3 HAUR HEZKUNTZAKO HELBURUAK

Haur Hezkuntzan bi eremu bereiz daitezke: **«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera»** **«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena»**. Eremu hauen barruan etapa bakoitzeko helburuak aurkitzen dira. Kasu honetan bigarren zikloko helburuetan oinarrituko da proposamena, izan ere, 5-6 urteko haurrentzat bideratua baidago. Ondoren landuko diren helburu adierazgarrienak honako hauek dira:

-“Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeke”.

-“Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko”. (Ikus eranskin 4).

#### 7.4 DISEINUAREN HELBURU DIDAKTIKOAK

Diseinuaren helburuekin lanaren bi gai nagusiak jorratu nahi izan dira: pentsamendu kritikoa eta komunikazioa. Hori lortzeko asmoz, curriculuma oinarritzat hartuz (Eusko Jaurlaritza, 2015) adierazi dira.

<b>DISEINUAREN HELBURU DIDAKTIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen arteko erlazioa sustatzea (elkarekintza)</li> <li>- Jolasten ikastea</li> <li>- Autonomia garatzea</li> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Esperimentatzea</li> <li>- Gai sakonagoak lantzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>
--	--

#### 7.5 EDUKIAK ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

Jarraian, diseinu didaktikoan landuko diren eduki eta oinarrizko gaitasunak aurkeztu dira. Era berean, konpetentzia nabarmenenak letra lodiz emanez (Eusko Jaurlaritza, 2015, 32.orr.).

EREMUA	LANDUKO DIREN EDUKIAK ( <b>bigarren zikloa</b> )
«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera»	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea</li> <li>2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean</li> </ol>
«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena»	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. MULTZOA. Hitzezko eta idatzizko komunikazioa</li> <li>2. MULTZOA. Gorputz-hizkuntza</li> <li>4. MULTZOA. Arte-komunikazioko beste modu batzuk</li> </ol>

<b>OINARRIZKO ZEHAR KONPETENTZIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.</b></li> <li>- <b>Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia</b></li> <li>- Elkarbizitzarako konpetentzia.</li> <li>- Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>- Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>
---------------------------------------	--

<b>OINARRIZKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.</b></li> <li>- Matematikarako kompetentzia.</li> <li>- Teknologiarako kompetentzia.</li> <li>- Kompetentzia sozial eta zibikoa.</li> <li>- <b>Arterako kompetentzia.</b></li> <li>- <b>Kompetentzia motorra</b></li> </ul>
---	--

## 7.6 ANIZTASUNAREN TRATAERA

Egun, beharrezkoa da aniztasunari ere arreta jartzea. Ikasle askok hezkuntza laguntza behar dute hala nola, errefortzua, jarduera gehigarriak etab. Baina bereziki funtsezkoa da kontuan izatea:

- Haur bakoitza ezberdina dela eta desberdintasun horiek errespetatu behar direla.
- Elkarlana sustatzen duten jarduerak proposatzea, integrazioa eta inklusioa bultzatuz.
- Jolasen bitartez motibazioa sustatzea.
- Ikaste erritmo ezberdinetara egokitzea eta ikasle bakoitzaren aukerak eta mugak kontuan izatea.

(Hezkuntza Saila, 2018)

## 7.7 HIRU, BI, BAT... EGIN! DISEINU DIDAKTIKOAREN GARAPENA

Lehenik eta behin, jarduerak egin aurretik aurkezpen bat egingo zaie ikasleei, sortutako "pentsatzen" abestiaz lagunduz:  
[https://www.youtube.com/watch?v=TE\\_eoL8Ebqs](https://www.youtube.com/watch?v=TE_eoL8Ebqs)

### ❖ JARDUERAK

1. **Antzezleak izan nahi dugu!**
2. **Mimoak!**
3. **Bugi-bugi, gorputza mugi**
4. **Klik hemen, klik han... IKTak beti gelan!**
5. **Ikusi makusi... zer ikusi?**
6. **Do, re, mi... musikarekin adierazi!**
7. **Hitz eta pitz txotxongiloekin**
8. **Pingui pinguinoa: geroaren hazia**

1 Antzezleak izan nahi dugu!	
Denbora: 50 min	Lekua: psikomotrizitate gela
Helburuak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen arteko erlazioa sustatzea (elkarekintza)</li> <li>- Jolasten ikastea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ezberdinak ikustea eta barneratzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Puxikak</li> </ul>
GARAPENA	
<p>Hainbat jardueraren bidez adierazpen forma ezberdinak ikusiko dira, talde lana bultzatu eta pentsamendua landuko dituztenak:</p> <p><b>BEROKETA (10minutu)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Aurpegi-beroketa:</b> masailekin, ahoarekin, bekainekin hasiz, geroago, lepoa, begiak, buruari garrantzia emanaz. Aldi berean, soinu bereziak eginez, r edo l lantzen adibidez, eta ahoskera kontuan hartuz.</li> <li>- <b>Energiaren jolasa:</b> Jolasak kideen artean energia pasatzean datza superheroiak izango balira bezala, bakoitzari energia iristean albokoari keinu bat eta soinu bat eginez. Beste keinu ezberdin batzuk sar daitezke, noranzkoa aldatzeko, alboan ez dagoen norbaiti energia pasatzeko adibidez.</li> </ul> <p><b>ATAL NAGUSIA (20 minutu)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-<b>Taldean jolasa:</b> gelatik ibiltzen, irakasleak pertsona kopuru ezberdinetako taldeak egiteko esango du eta hauek taldekatuko dira.</li> <li>- <b>Euriaren jolasa:</b> hiruko taldeak: bi eskutik helduta (etxeak), hirugarrena erdian jarrita. Bere helburua: talde eta leku bat lortzea. Horretarako... hiru hitz: EURIA:</li> </ul>	

guztiak mugitu, beste leku eta talde bat aurkituz, pertsonak etxea izan ahal dira eta alderantziz. **PERTSONA:** Etxeak geldi geratu behar dira lekuan, pertsonak direnak korrika atera etxetik eta beste etxe bat aurkitzen saiatu behar dira. **ETXEA:** Pertsonak direnak lekuan geldirik geratu behar dira, bitartean etxeak izan direnak banatu eta beste pertsona bat aurkitu beharko dute etxe bihurtzeko.

- **Makinak sortzen:** taldeka bakoitzak makina bat sortu...Horretarako, gorputzak piezak balira bezala erabiliko dira. Taldekide bat erdian jarrita mugimendu bat egiten du, mugimendu laburra izan behar da eta behin eta berriz errepikatu behar du, hurrengo pertsona mugimendu honetan integratu behar da beste mugimendu bat eginez, eta horrela guztiak sartu behar dira, "makina" bat sortuz. Soinuak integratuz.

- **Monstruen jolasa:** Harrapaketaren jolasaren antzekoa, baina harraparia monstro bat izango da! Beraz... ibilkera eta soinuak horrelakoak izan behar dira!

### **BAREALDIA (10 minutu)**

- **Ezin dira eskuak askatu!:** 7 pertsonen artean borobil bat osatuko da, honetan eskuak elkarri emanda kokatzen, arau bakarra: eskuak ez askatzea. Borobilean egonda, batzuk beste batzuen esku-azpitik pasatu behar dira, "korapilo" bat eginez, ahal beste korapilatsua egin eta gero, hau desegitea eskatu behar zaie, oraingoan ere, eskuak askatu gabe.

- **Puxikaren jolasa:** bakoitzak puxika bat hartu eta gorputzeko atal guztietatik pasatu behar du, gorputzean laztanak eginez (lehenengo buruarekin, gero besoak, sabela...). Musika jarri eta puxikarekin dantzatu behar da. Arau bakarra puxika ezin dela lurrera jauzi izango da.

- **Txoriaren jolasa:** Txori imaginario bat hartu eta gure artean pasatzen hasten gara...honen ezaugarriak aldatzen doaz (pisutsuago, handiago...).

2 Mimoak!	
Denbora: 45 min	Lekua: psikomotrizitate gela
Helburuak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Autonomia garatzea</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Esperimentatzea</li> <li>- Gai sakonagoak lantzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arropa beltza, eskularru txuriak</li> <li>- Argi beltza</li> <li>- Gorputza margotzeko koloredun margo fosforitoak</li> <li>- Neoi argiak</li> <li>- Kamara digitala</li> <li>- Folioak eta margoak</li> </ul>
GARAPENA	
<p>Mimoak izango gara! Mimoek ez dute hitz egiten, eta horregatik isil-isilik egon behar da jarduera osoan zehar, denak mutu bihurtuz. Esperimentatzeko momentua da emozioak plazaratuz.</p> <p><b>Lehenengo atala (15min):</b> 5 abesti entzungo dira, bakoitzak sentimendu bat sortarazi dezakeena (Ikus eranskin 5) hauek entzuten diren bitartean bakoitzak folio batean nahi duena margotuko du, abestiak sorrarazten diona islatuz; <i>margolan musikal</i> bat sortuz. Abesti bakoitzarekin bat egingo da.</p> <p><b>Bigarren atala (30min):</b> egin dituztenetatik gustokoena hautatu eta borobil batean jarriko dira. Bitartean, arropa beltza jantzi, aurpegia margotu eta eskularru txuriak jantziko dituzte. Ostean, argia itzali eta argi beltza/neon argia piztuko da. Azkenik, bakoitzak entzundako abestien artean bat hautatuko du eta bakoitzak nahi duena interpretatu dezake bai txandaka baita taldeka ere. Grabatzeko aproposa den ariketa da, gero denen artean argi efektua ikusteko.</p>	

<b>3 Bugi-bugi gorputza mug!</b>	
<b>Denbora: 60 min</b>	<b>Lekua: psikomotrizitate gela</b>
<b>Helburuak</b>	<b>Materiala</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mozorroak</li> <li>- Ileordeak</li> <li>- Aipaingarriak</li> <li>- Aurpegia margotzeko margoak</li> <li>- Ohialak eta izarak</li> </ul>
<b>GARAPENA</b>	
<p>Munduko dantzariak bihurtuko gara, denboraren makinean sartuz. Historia begirada kritiko batez birpasatuz, gorputzaren bidez aro bakoitzean eman zitezkeen dantzak adieraziko dira. Horretarako, mozerro ezberdinak erabiliko dira, ohialak, izarak, margoak, ileordeak, aipaingarriak etab. Garai bakoitzeko musikak entzungo dira, bakoitza entzuterakoan era librean dantzatu daiteke. Aldi berean, bakoitza entzun baino lehen garaiko argazkiren bat erakutsiko zaie hurrei (Ikus eranskin 6). Azkenik, denbora librea emango zaie nahi duten garaiko pertsonaian bihurtzeko eta han jolas sinbolikoa egiteko (<i>Dantza afrikarrak, antzinaroko dantzak, erdi aroko dantzak, errenazimentuko dantzak, dantza barrokoak, erromantizismoko dantzak, dantza moderna, dantza garaikidea</i>).</p>	



4 Klik hemen, klik han... IKTak beti gelan!	
Denbora: 50 min	Lekua: gela/informatika gela
Helburuak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Esperimentatzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argi mahaia</li> <li>- Erretroproiektorea</li> <li>- Arbela digitalak</li> <li>- Tabletak</li> <li>- Koloretako gauza gardenak</li> <li>- Koloretako orriak</li> <li>- Tenperak</li> <li>- Hondarra</li> </ul>
GARAPENA	
<p><b>Lehenengo atala (20min)</b></p> <p>Ekintza hau egiteko 2 txoko egongo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1. Txokoa: <u>argi mahaia</u> eta <u>erretroproiektorea</u> egongo dira eta hauekin esperimentatzeko materiala.</li> <li>- 2. Txokoa: <u>arbela digitala</u> edo <u>tabletez</u> baliatuz, <i>paint</i> edota <i>writeit</i> aplikazioen bidez lienzo digitalean egindako artelan paregabeak sortuko dira, gero ikusiko direnak.</li> </ul> <p><b>Bigarren atala (30min)</b></p> <p>Bestalde, denen artean egin beharko dituzten beste bi ekintza proposatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1. Talde-ekintza: <i>My studios art gallery</i> web orrian denen artean munduko eta historiako arte lan esanguratsuenak ikusi eta komentatu egingo dira.</li> <li>- 2. Talde- ekintza: <i>Story bird</i> eta <i>Scribble</i> aplikazioen bidez denen artean, ikusitako artelanean inguruan istorio bat asmatuko da, lehen egindako marrazkiak eta argazkiak erabiliz.</li> </ul>	

5 Ikusi makusi... zer ikusi?	
Denbora: 45 min	Lekua: gela/psikomotrizitate gela
Helburuak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Esperimentatzea</li> <li>- Gai sakonagoak lantzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kartoizko kutxa</li> <li>- Esku- argi edo fokua</li> <li>- Kartulina beltza</li> <li>- Makiltxoak</li> <li>- Zinta itsasgarria</li> </ul>
GARAPENA	
<p>Jarduera honi hasiera emateko doluari buruzko ipuin bat kontatuko zaie: <i>Ez da erraza, katagorri!</i>- <i>Elisa Ramón</i>. Ondoren, kartulina beltzetan ipuinean agertzen diren elementuen siluetak emango zaizkie eta haietatik bat hautatuko dute. Gero, makiltxo batean itsatsiko dituzte. Izan ere, bakoitzak bere pertsoniarekin antzeztera abiatuko da. Bi talde egingo dira, horrela txandaka, batzuk antzezten duten bitartean, besteak ikusle izango dira. Ostean, argiak itzali eta magia egingo da denak apaindutako eta haien izenak dituen argi kutxarekin eta fokuekin. Hezitzaileak ipuina berriro kontatu eta txandaka pertsonaia bakoitza azaltzen joango da, binaka, hirukoteka... ipuinaren mezua barneratuz. Azkenik, denbora libre izango dute gehiago esperimentatzeko, pertsonaia gehiago sortzeko eta istorio berriak asmatzeko.</p> <p><b>Aldaera:</b> Pareta batean proiektore batekin lauki txuri bat proiektatu eta han eskuekin ere itzalak sortu ditzakete eredu emanaz (Ikus eranskin 7).</p>	

<b>6 Do, Re, Mi... musikarekin adierazi!</b>	
<b>Denbora: 45 min</b>	<b>Lekua: musika gela</b>
<b>Helburuak</b>	<b>Materiala</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Esperimentatzea</li> <li>- Gai sakonagoak lantzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika instrumentuak</li> </ul>
<b>GARAPENA</b>	
<p>Jarduera hau egiteko instrumentuak behar dira, izan ere, musikariak izateko aukera egongo da gaur! Hasteko, Joxan Ormazabalen <i>Erraldoia eta txorien</i> ipuina irakurriko da. Ondoren, haurrak binaka jarriko dira eta bikote bakoitzari musika instrumentu bat esleituko zaie aldi berean, pertsonaia edota momentu batekin erlazioan izango dena. Hori jakinda, ipuinari hasiera emango zaio berriro, eta denen artean musika jarriko diete pertsonaia bakoitzari, egoerei eta gertakariei. Horrela ipuin musikal polit bat sortuko dugu! (Ikus eranskin 8).</p>	

<b>7 Hitz eta pitz txotxongiloekin!</b>	
<b>Denbora: 45 min</b>	<b>Lekua: gela/ psikomotrizitate gela</b>
<b>Helburuak</b>	<b>Materiala</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Autonomia garatzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohialak</li> <li>- Guraizeak</li> <li>- Itsasgarria</li> <li>- Eskularru zaharrak</li> <li>- Apaingarriak</li> </ul>
<b>GARAPENA</b>	
<p>Oraingoan, txotxongiloen esparruan murgiltuko dira ikasleak. Era askotako txotxongiloak daude eta horregatik aberasgarria da hauetako bakoitza erakustea. Era bakoitzeko bat ikusgai izango dute eta bakoitzaren erabilpena azalduko zaie.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Eskularru txotxongiloa</i></li> <li>- <i>Haga txotxongiloa</i></li> <li>- <i>Bunkaru</i></li> <li>- <i>Hari txotxongiloak</i></li> <li>- <i>Behatz txotxongiloak</i></li> <li>- <i>Marote txotxongiloak</i></li> <li>- <i>Muppetsak</i></li> <li>- <i>Pupi</i></li> <li>- <i>Txotxongilo laua</i></li> </ul> <p>Gero, eskularru txotxongiloak egingo dira denen artean eta bakoitzak bere pertsonaia sortuko du, denak errespetatuz eta berdintasunean sakonduko dute besteena ere ondo dagoela eta baliagarria dela ikusiz. Azkenik, jolas librearekin istorioak asmatu ditzakete.</p>	

8 Pingui pinguinoa: geroaren hazia	
Denbora: 45 min	Lekua: psikomotrizitate gela
Helburuak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarekintza sustatzea</li> <li>- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea</li> <li>- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz</li> <li>- Kritikoki pentsatzen ikastea</li> <li>- Gai sakonagoak lantzea</li> <li>- Gozatzea eta disfrutatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zakarrontzi poltsak beltzak</li> <li>- Kartulina txuriak eta laranja</li> <li>- Guraizeak eta grapadora</li> <li>- Koltxonetak</li> <li>- Espalderak</li> <li>- Bankuak</li> <li>- Goma</li> </ul>
GARAPENA	
<p>Ekintza hau garatu ahal izateko, psikomotrizitate gela edo kiroldegia behar da. Lehenik eta behin aldaketa klimatikoari buruzko aurkezpentxo bat egingo zaie hurrei. Ondoren, pinguino bihurtuko dira denak, mozorroa sortuz. Horretarako, denen artean poltsei zulo bat egingo diete, handik burua atera ahal izateko. Gainean hezitzailearen laguntzaz kartulina txuria zatitu (borobil bat eginez) eta poltsan (sabelean) grabatuko da. Ondoren, berdina, mokoarekin karulina laranjaekin, gomaxo batekin lotuz eta sudurrean ipiniz.</p> <p>Azkenik, ipuina kontatuko du irakasleak eta denak dramatizatu beharko dute, oztupoak gaindituz eta istorioan zehar ematen diren argibideak jarraituz. Amaitzeko <i>pingui pinguinoaren</i> (<a href="https://www.youtube.com/watch?v=rhlpLbKBb_w">https://www.youtube.com/watch?v=rhlpLbKBb_w</a>) abestia jarriko da eta denbora libre utziko zaie materialarekin jolastu ahal izateko.</p>	

## 7.8 EBALUAZIOA

**Ebaluazioa**, behaketan oinarrituko da. Honekin, ikasle bakoitzak prozesu horretan zer puntutan hasi eta bukatzen duen azter daiteke. Aldi berean, eboluzio horren oinarritzat haurren identitatea kontuan hartuko da, bere ingurua, adina edota, egoera pertsonala. Ez da behaketa hutsa egingo, apunteak hartuko dira eta analisia egingo da ekintza bakoitzean. Horrela jarraipen bat egingez. Betiere oinarri bezala, curriculumeko ebaluazio irizpide eta adierazleak kontuan hartuko dira (Eusko Jaurlaritza, 2015, 34.orrr.):

<b>EBALUAZIO-IRIZPIDE ETA ADIERAZLEAK</b>	
<p><b>NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN EZAGUERAREN EREMUA</b></p>	<p><b>1) Gorputzaren egituraren gero eta irudi doituago bat adieraztea eta bere sentsazio eta pertzepzioez jabetzea.</b></p> <p>2) Trebetasun motorrak eta eskuak erabiltzeko abileziak hobetzea, bere ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa izanda.</p> <p><b>3) Gero eta autonomia handiagoz ebaztea eguneroko bizitzako arazo-egoera errazak.</b></p> <p>4) Jolasetan parte hartzea, eta, parte-hartze horretan, gero eta gehiago erregulatzea sentimenduen eta emozioen adierazpena.</p> <p>5) Ingurunea haren elementuen behaketaren, eskuzko erabileraren eta esplorazioaren bidez deskubritzeko jakin-mina adieraztea.</p> <p><b>9) Gizarte-ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziazko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta.</b></p>

<p><b>NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ETA ADIERAZPENAREN EREMUA</b></p>	<p><b>1) Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentsazioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko.</b></p> <p>2) Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenen, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda.</p> <p><b>3) Elkarrizketen bidez edo txandaka parte hartzea komunikazio-egoeretan eta gizarte-harremaneko jolasetan.</b></p> <p><b>6) Artearen, teknologiaren eta ikus-entzunezkoen bitartekoak, materialak eta teknikak erabiliz adieraztea eta komunikatzea.</b></p>
--	--

**Txantiloien bidezko ebaluazioa jarduera bakoitzeko (Ikus eranskin 9).**

## **8. BALORAZIO PERTSONALA**

Gratu Amaierako Lan (GrAL) hau nire bizitza akademiko motzean hezkuntza arloan egindako ekarpenik garrantzitsuena bezala aurkezten dut. Luzea ez ezik, nire aburuz, sakona ere izan baita. Hasieran, pentsamendu kritikoaren gaia hautatu nuenean ez nekien oso ondo zertan murgilduko nintzen, izan ere, nahiko berria zen niretzat. Hasieratik, zailtasunez jositako bide polit batekin topo egin dut: informazio bilaketan arazoak, ezezagunak nituen adituen hitzak ez ulertzea ezta barneratzea ere, lan txukun bat entregatzeko behar eta nahi izan dudana denbora ez izatea, esperientzia falta... ez da niretzat, behintzat, lan samurra izan.

Denbora igaro ahala, nire ideiak antolatzen hasi nintzen (beti tutorearen laguntzaz) eta egitasmoari ilusio handiz ekin nion. Bidea aberasgarria izan da, bere garapenaren prozesu osoan zehar makina bat kontu ikasi ditudalako. Azterlanean zehar aipatu bezala, lan honekin HHn pentsamendu kritikoaren garapena bultzatu nahi izan da dramatizazioaren bidez baliabideak eskainiz. Alde horretatik, dramatizazioa pentsamenduarekin erlazioan jartzea erraza izan da, izan ere, HHko

haurrek uneoro pentsatzen ari direna komunikatzen eta adierazten dute (Madrona, 2005). Zailagoa izan dena pentsamendu kritikoaren esparruan murgiltzea izan da eta era berean, ni pertsona kritikoago batean bihurtzea.

Halaber, aberasgarria izan da ezaugarri askotariko hezitzaileen iritziak aztertzea eta horiekin ondorioak ateratzea. Baina niretzat, diseinu didaktikoa sortzea izan da benetan gehien hunkitu nauen lanaren atala. Haurren garapen integrala lortzeko (garapen kognitibo, sozial, emozional eta motorra) jarduerak sortzea oso interesgarria izan da eta. Dramatizazioaren bidez gai sakonak lantzea eta pentsamenduarekin jolastea ideia ezinhobea izan dela iruditu zait. Nire irakasle izateko gaitasunak martxan jarri ditut, betiere emozioak bide honetan funtsezko gidariak izan direla aitortuz. Golemanek (2018) sentimenduen adierazpena funtsezko gaitasun soziala eta pentsamendua lantzeko prozesu egokia dela aipatzen du. Azken finean, horretan datza dramatizazioa: pentsamenduak eta emozioak lotzean, barneratzean eta adieraztean. Horretan datza jolasa, eta horretan ere badatza bizitza.

Azkenik, Haur Hezkuntzaren garrantzia azpimarratu behar dut edozein gizarteren oinarria hezkuntzan dagoela uste dudalako. Hezkuntza horrek etorkizuneko pertsona aske eta kritikoak sortzea du xede, era honetan gizartearen garapena bultzatuz. Melianek aipatzen duenez (2017, 9.orr.) “solo el pensamiento critico conduce al desarrollo de la sociedad”. Beraz, goazen egun hain beharrezkoa den pentsamendu kritiko hori gure gelatan sustatzea.

Eskerrak emanaz amaitu nahiko nuke lan hau: eskerrik asko bihotzez nire zuzendariari, irakasle izateko pasioa transmititu izanagatik eta niregan konfiatzeagatik. Eskerrik asko familia, lan honekin pasa ditudan orduak zuei kendu dizkizuet eta. Eta, eskerrik asko zuri ere, Andrea, inoiz amore ez emateagatik eta zure irakasle izateko grina adierazteagatik.



## 9. ERREFERENTZIAK

- Abad, J. (2011). La Ciudad Lúdica: interpretación creativa de los espacios urbanos a través del juego. *Creatividad y Sociedad*, 37. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.creatividadysociedad.com/articulos/17/4%20la%20ciudad%20%C3%BAdica.pdf>
- Agut, M. eta Hernando, C. (2015). Escuelas Reggio Emilia y los 100 lenguajes del niño: experiencia en la formación de educadores infantiles. *Actas del XVIII Coloquio de Historia de la Educación: Arte, literatura y educación* (2), 139-151 orr.
- Álvarez-Uria, A., Tresserras, A., Zelaieta, E., eta Vizcarra, M. (2015). *Kubik: antzezlan bat baino gehiago: haur hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat*. Bilbo: Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Baquero, R. (1996). *Vigotsky y el aprendizaje escolar* (4), 137-159. Buenos Aires: Aique.
- Baychimo teatro (2019). “*Cultivando miradas*”. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://baychimoteatro.com/proyecto-cultivando-miradas/>
- Bustingorry, S., Tapia, I., eta Mansilla, F. (2018). Investigación cualitativa en educación. Hacia la generación de teoría a través del proceso analítico. *Estudios pedagogicos*, 32(1), 119-133. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://revistas.uach.cl/pdf/estped/v32n1/art07.pdf>
- Cañas, J. (2009). *Didáctica de la expresión dramática: una aproximación a la dinámica teatral en el aula*. Bartzelona: Editorial Octaedro.
- Castellano, H. (2007). *El pensamiento crítico en la escuela*. Buenos Aires: Prometeo Libros Editorial.
- CEIP Altza. *Altza eta Leosiñeta* (2019). Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.altzasjc.hezkuntza.net/web/guest/presentacion>
- Chancerel, L. (1963). *Panorama del teatro: desde sus orígenes a nuestros días*. Buenos aires: Compañía General Fabril.
- Chrobak, R. (2017). El aprendizaje significativo para fomentar el pensamiento crítico. *Archivos de Ciencias de la Educación*, 11(12), 2-12.
- Colegio San Ignacio. (2019). Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.donostiajesuitak.org/>
- Cruz, P. (2014). Creatividad e Inteligencia Emocional (Cómo desarrollar la competencia emocional, en Educación Infantil, a través de la expresión lingüística y corporal). *Historia y comunicación Social*, (19) 107-118. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://revistas.ucm.es/index.php/HICS/article/view/44944>
- De Pelekais, C. (2000). Métodos cuantitativos y cualitativos: diferencias y tendencias. *Telos*, 2(2), 347-352.
- Delgado, M.E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en educación infantil. *Pedagogia magna*, (11), 382-392.
- Dewey, J. (1910) *How we think*. Boston: D.C. Heath & Co.
- Español, U. C. (2016). *Convención sobre los Derechos del Niño*. Fundación Unicef C. Español.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2015). Heziberri 2020. *Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*. Honako webgune honetatik berreskuratua: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_heziberri/adjuntos/Heziberri\\_2020\\_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_heziberri/adjuntos/Heziberri_2020_e.pdf)
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2018). *Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren trataera*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusiboa-aniztasunaren-trataera/web01->

- [a3hinklu/eu/](#)
- Fernandez, M. eta Feliu Torruella, M. (2017). Reggio Emilia: An Essential Tool To Develop Critical Thinking in Early Childhood. *Journal of new approaches in ducational Research*, 6(1), 50-56.
- García, M. (1992). *Teatro infantil y juvenil*. Bartzelona: Ediciones Internacionales Univ.
- Goleman, D. (2018). *Inteligencia emocional*. Madril: Editorial Kairós.
- Gredos (2015) Platón Diálogos V (Teeteto), Madrid: Editorial Gredos.
- Hirschberger, J., eta Ros, A. (2012). *Breve historia de la filosofía*. Bartzelona: Herder Editorial.
- Lezo herri eskola. (2013). Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.lezoherrieskola.eus/es/>
- Lipman, M. (1988), "Critical thinking - What can it be?" *Educational Leadership*, 1(46), 38-43.
- López, G. (2012). Pensamiento crítico en el aula. *Docencia e Investigación*. 1(22), 41-60.
- Madrona, P. G. (2005). *Expresión corporal y educación infantil*. Bartzelona: Wanceulen SL.
- Malaguzzi, L. (2005). *Los cien lenguajes de la infancia*. Bartzelona: Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- Melián, I. (2017). *Simbología: de La Hermandad de Doña Blanca*. Createspace Independent Pub.
- Montoya eta Gómez, J. C. (2008). Estrategias didácticas para fomentar el pensamiento crítico en el aula. *Revista Virtual Universidad Católica del Norte*, 25, 1-26. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=194215513012>
- Murillo, D., eta Santos, A. (2018). *Estrategias de aprendizaje en el desarrollo de pensamiento crítico. Diseño de un entorno web*. (Tesi doktora).Guayakil: Guayakilko Unibertsitatea.
- Onieva-Lopez, J. (2011). *La dramatización como recurso educativo: estudio de una experiencia entre estudiantes malagueños de un centro escolar concertado y adolescentes puertorriqueños en situación de marginalidad*. (Tesi doktora). Malaga: Malagako Unibertsitatea.
- Ortiz, A. (2009). Educación Infantil: pensamiento, inteligencia, creatividad, competencias, valores y actitudes intelectuales. Madril: Litoral.
- Ortiz, A. (2011). Hacia una nueva clasificación de los modelos pedagógicos: el pensamiento configuracional como paradigma científico y educativo del siglo XXI. *Praxis*, 7(1), 121-137.
- Pasaia Lezo Lizeoa. (2019). Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.lizeoa.eus/>
- Paul, R., eta Elder, L. (2005). *Estándares de competencia para el pensamiento crítico. Estándares, Principios, Desempeño, Indicadores y Resultados. Con una Rúbrica Maestra en el Pensamiento Crítico*. Fundación para el pensamiento crítico. Honako webgune honetatik berreskuratua: [https://www.criticalthinking.org/resources/PDF/SP-Comp\\_Standards.pdf](https://www.criticalthinking.org/resources/PDF/SP-Comp_Standards.pdf)
- Piaget, J. (1973). *La formación del símbolo en el niño: imitación, juego y sueño. Imagen y representación*. México: F.C.E.
- Piaget, J. (1986). *La epistemología genética*. Madril: Debate.
- Real Academia Española. (2019). *Diccionario de la lengua española* (22.ed.). Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.rae.es/rae.html>
- Saso, C., eta Pérez, E. (2003). Las comunidades de aprendizaje: Un modelo de educación dialógica en la sociedad del conocimiento. *Revista Interuniversitaria de formación del*

- profesorado*, (48), 91-103.
- Tonucci, F. (2004). La ciudad de los niños. *Cuadernos de pedagogía*, 229 (8-12).
- Vara, A. (2016). La concepción de la Educación Infantil en España y su influencia en la formación de su profesorado. *Revista Latinoamericana de Educación Infantil*, 5(4), 106-118.
- Zúñiga, L. (2014). El pensamiento crítico en la teoría educativa contemporánea. *Actualidades investigativas en educación*, 14(2).

## **ERANSKINAK**

### **ERANSKINAK 1: LOS 100 LENGUAJES DEL NIÑO**

El niño es hecho de cien,  
el niño tiene cien lenguajes  
cien manos, cien pensamientos  
cien maneras de pensar  
de jugar y de hablar  
cien siempre cien  
maneras de escuchar  
de maravillarse, de amar  
cien alegrías  
para cantar y entender  
cien mundos que descubrir  
cien mundos que inventar  
que soñar.

El niño tiene cien lenguajes  
((y además cien, cien cien mundos más)?

Pero le roban noventa y nueve.

La escuela y la cultura  
le separan la cabeza del cuerpo.

Le dicen:

de pensar sin las manos,  
de actuar sin la cabeza,  
de escuchar y no hablar  
de entender sin alegría  
de amar sin maravillarse

solo en Pascua y Navidad. Le dicen:

que descubra el mundo que ya existe

Y de cien le roban noventa y nueve.

Le dicen:

Ellos le dicen:

que el juego y el trabajo

la realidad y la fantasía

la ciencia y la imaginación

el cielo y la tierra

la razón y el sueño

son cosas que no pueden estar juntas.

Y le dicen

que el cien no existe.

El niño dice: "en cambio el cien existe.

Loris Malaguzzi

## ERANSKINAK 2: PROPOSATUTAKO GALDETEGIA ETA PENTSAMENDU KRITIKOAREN DEFINIZIOAREN ERANTZUNAK

### GALDETEGIA

#### **Zer da, zure ustez, pentsamendu kritikoa ?**

- Bakoitza bere buruaz pentsatzea.
- Norberak bere iritzi propioa izatea eta ulertzen ez dituen gauzak zalantzan jartzea
- Gauzak zalantzean jartzea
- La capacidad del ser humano para dudar sobre todo, reflexionar, no dar todo por hecho, indagar e investigar a fondo sobre un tema, buscar una respuesta razonada y justificada
- Argudioak ebaluatzeko aukera ematen duen jarduera mentala da.
- Norberak bere pentsamendua azaltzea libreki.
- Faktore ezberdinak eta fauza asko kontuan hartuta gauzekiko zuk zure kabuz garatzen duzun ideia edo pentsamendu propioa.
- Zerbaiti buruz bakoitzak duen iritzia eta pentsamendua, besteen iritzia kontuan hartu gabe
- Bizitzaren inguruan lantzea HHn
- Errealitatea ulertzea eta hausnartzea
- Hausnartze gaitasuna gai ezberdinen inguruan bakoitzaren ideologiak kontuan hartuz.
- Gauzak (ideiak, iritziak, notiziak etabar) zalantzan jartzeko gaitasuna
- Norberaren pentsatzeko gaitasuna, txikitatik irakasten da.
- Konziente izatea nola eta zergatik hartzen ditugun erabakiak .
- Uff, arazo baten aurrean, zerbait aurrera eramateko garaian edo aukeraren bat hartu behar denean ezagutzen dugun informazio guztia kontutan hartu behar degu. Zein den benetan garrantzitsua edo ez horrenbeste, eta zein den benetazkoa. Edukiko situen ondorio onak eta txarrak aztertu eta gero erabaki.
- Jasotzen dugun informazioa aztertzea eta ebaluatzea, hipotesiak ateratzea...

- Prozesu bat da, non, pertsona batek, ezagutzak berenganatzeko edo antolatzekeo prozesuan, aztertzen, ulertzen eta ebaluatzen duenean.
- Bakoitzak daukagun arrazonatzeko gaitasuna.
- Hainbat gauza edo gure inguruan gertatzen denaren inguruko arrazoitzeko, ulertzeko gaitasuna izatea, jasotzen dugun informazioa barneratzen, ordenatzen eta beste ideiekiko loturak eta harremanak sortzea, guk barneratzen dugun informazio hori defendatzen jakitea (zergatik?), hainbat egoeren aurrean zer egin jakitea, azaltzea, arrazoitzeko gaitasuna izatea, ideia bat defendatzeko gaitasuna izatea...
- Bakoitzak bere bibentzietatik daukana
- Egoera batean, bakoitzak jasotzen duen informazioaren arabera hartzen dituen erabaki desberdinak.
- Pertsona eta gauzekin kritikoa izatea
- Bakoitzaren pentsamendua besteena kontuan hartu sabe.
- Zentzuz jokatzeta
- Haurrak bakarrik ikas dezan erantzunik eman gabe.
- Ikasleek ikasten ari direnaren inguruan beren buruari galderak egitean datza. Irakasle bezela, haurrek beren buruari galdera egokiak egiten irakatsi behar diegu eta ez galderak erantzuten. Estrategia askorekin ikasleek dakitena erabiltzen dute ikaskuntza berriak ondorioztatzeko, beste estrategia askorekin, ikasleak elkarlanean jartzen dira. Askotan, ikasleen ustetan menperatzen dituzten gaietan trabatuta gelditzen dira eta besteen laguntza bilatzen dute; elkarlanean hasten dira eta zereginetan aurrerapen handiagoak lortzen dituzte. Galdera kritikoak egiten hasten dira. Horrek, ikasleei aukera ematen die euren ikas prozesuaren ardura hartzeko.
- Kontrastatzea besteen ustea zure pentsamendua edo iritzia erabiliz
- Edozein iritzi, bertsio zalantzan jarri eta zure propioa eraikitzea
- Gure buruan egiten dugun prozesu bat da. Antolatzen ditugu ezagupenak, interpretatu egiten ditugu iritzietan eta baieztapenetan eta laguntzen dizkigu erabaki hobetenak hartzen.
- Ikaslea bere ezagutzaren sortzailea izan behako zen, emandako balibideak abiapuntu bezala harturik.
- Errealitatea Zalantzan jartzea
- Besteen iritziei buruzko errespetua azaltzea

- Besteak esandakoai jaramonik ez egitea eta zuk pentsatzen duzunari kaso egitea
- Arrazoa erabiltzea
- Aske iritziak ematea beldurrik gabe
- Munduari buruzko zure pertzepzioa



ERANSKINAK 3: ORDUTEGIA ETA ESPAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

LEHENENGO ASTEA:

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00 -10:00					
10:00 - 11:00	<b>1. JARDUERA</b> PSIKOMOTRIZITAT E GELAN		<b>2. JARDUERA</b> PSIKOMOTRIZITA- TE GELAN		
11:00 - 11:30					
11:30 - 12:30					
12:30- 13:30					

BIGARREN ASTEA:

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00 -10:00					
10:00 - 11:00	<b>3. JARDUERA</b> PSIKOMOTRIZITA TE GELAN				<b>4. JARDUERA</b> GELAN
11:00 - 11:30					
11:30 - 12:30					
12:30- 13:30					

HIRUGARREN ASTEA:

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00 -10:00					
10:00 - 11:00	<b>5. JARDUERA</b> GELAN/ PSIKOMOTRIZITA TE GELAN				
11:00 - 11:30					
11:30 - 12:30					
12:30- 13:30					<b>6. JARDUERA</b> MUSIKA GELAN

LAUGARREN ASTEA:

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00 -10:00					
10:00 - 11:00			<b>8. JARDUERA</b> PSIKOMOTRIZITA- TE GELAN		
11:00 - 11:30					
11:30 - 12:30	<b>7. JARDUERA</b> PSIKOMOTRIZITA -TE GELAN				
12:30- 13:30					

ERANSKINAK 4: etapako helburuak

EREMUA	Etapako helburuak
<p><b>«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera»</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeko.</li> <li>- Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.</li> <li>- Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrezanetara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.</li> <li>- Ingurune fisiko eta soziala behatu eta aztertzea eta hura ezagutzeko interesa adieraztea, haren partaide izateko sena lantzeko eta ingurune horretan nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz jarduteko.</li> <li>- Ingurune fisikoa arakatzeko eta esperimendatzeko eta haren elementuetako batzuen ezaugarriak ezagutzeko, elementu horien gainean eragin eta haiek eraldatzeko gaitasuna lantzeko, eta interes eta errespetuzko jarrerak lantzea.</li> <li>- Arian-arian, gizartean jokatzeko oinarritzko jarraibideak barneratzea eta norberaren portaera jarraibide horietara moldatzea, gero eta modu egoki eta orekatuagoan.</li> </ul>
<p><b>«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena»</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzeko eta horiez jabetzeko, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.</li> <li>- Hizkuntza askotarikoaren komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzeko, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrezanek, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.</li> <li>- Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.</li> <li>- Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.</li> </ul>

ERANSKINAK 5: margolan musikalerako abestiak (aukera batzuk):

- Musika klasikoa (bibolinak eta pianoa): <https://www.youtube.com/watch?v=Uz3tUNtOKQM>

- Pianoan jotako musika klasikoa: <https://www.youtube.com/watch?v=1JAJEqBLwzQ>

- Rock Queen: <https://www.youtube.com/watch?v=H0Qo4wnJWk4>

- Karibeko piratak filmako abestia: <https://www.youtube.com/watch?v=6VH6JA9uES4>

- Tarzan filmako abestia: <https://www.youtube.com/watch?v=xxJelxsOI-Q>

- Lehoi errege filman azaldutako "Hakuna Matata" abestia:  
<https://www.youtube.com/watch?v=RZ6B3OL9zm4>

ERANSKINAK 6: MUNDUKO DANTZEN ABESTIAK

- Dantza afrikarrak: “percusión africana pista 1”  
<https://www.youtube.com/watch?v=yzTBud6HEps>



- Antzinaroko dantzak: “Música Griega Antigua (Music Of The Ancient World)”  
<https://www.youtube.com/watch?v=eBuV01H1rg>



- Erdi aroko dantzak: “MÚSICA INSTRUMENTAL de la BAJA EDAD MEDIA y del RENACIMIENTO” <https://www.youtube.com/watch?v=27npsJDhOM4>



- Errenazimentuko dantzak: “Música del Renacimiento | Música Clásica estilo Medieval” <https://www.youtube.com/watch?v=r2g-PqtwEG0>



- “Dantza barrokoak: Lo Mejor del Barroco | Música Barroca” <https://www.youtube.com/watch?v=QpcWWb1VC6M>



- Erromantizismoko dantzak: “Música del Romanticismo” <https://www.youtube.com/watch?v=GUy4la5m3gM>




- Dantza modernoa: "Titanium" <https://www.youtube.com/watch?v=1UIRlbpYTwk>



- Dantza garaikidea "P!nk - Try (Official Music Video)" <https://www.youtube.com/watch?v=yTCDVfMz15M>



ERANSKINAK 7: ITZALEN EREDUA





ERANSKINAK 8: IPUIN MUSIKALA Erraldoiak eta txoriak.

ERABILITAKO SOINU-MATERIALA: Xilofonoa, maraka, gorputz perkusioa, okarina, kaskainetak, gortina, danborra.

Hankaundi



(*Protagonistaren soinua da, xilofonoaren lau nota izango dira:*

*sol, do. Bi aldiz errepikatuz sekuentzia azaltzen da une bakoitzean*) altua da, altuegia. Hain

da altua bere ileek kilimak egiten baidizkiete tripan. Hankaundi



handia da,

handiegia



Hain da handia lurra dar-dar egiten baitu bere oinkada

bakoitzean.

Bakarrik dago Hankaundi



, bakarregi. Hain dago bakarrik azkeneko

aldiz norbait ikusi zuenetik ilargiak mila aldiz baino gehiago aldatu baitu aurpegia.

Bere inguruko barre **burlati** guztiei ihes egin zien erraldoiak. **Negarrez** jartzen zuten herritarren asmo txarreko broma gaztoei ere ihes egin zien Hankaundi



erraldoiak. Orain Hankaundi



erraldoia baso **handi** baten barru-

barruan bizi da eta nahiago du zuhaitzen lagun izan, nahiago du haizearen



okarinatik putz egingo da lau aldiz, bitartean beste batek, txistuen bidez txorien *soinua egingo du* bizkarrean jolasean ibiltzen diren txorien lagun eta mota guztietako lagun izatea beraiei bere sekretutxoak kontatuz.

Heldu zen udaberria, bere egun eguzkitsuekin han eta hemen habiak kumetxoz bete ziren, txorikumeak **txio txioka** zeuden lumarik gabe eta goserik

Hankaundi




oso hurbiletik ikusi zituen txoriak nola zenbiltzan gelditu ere

egin gabe alde batera eta bestera, bere kumeentzat janari bila. Eta bat-batean...

(pum txikia) zerbaitek jo zuela konturatu zen erraldoia. Habiatik eroritako txorikume bat zen. Erraldoiak bere esku handian hartu zuen txorikumea, hantxe zeukan sehaska batean bezala, lumarik gabeko hezgaztiko hark **txio eta txio** egiten zuen gosez eta beldurrez. Erraldoiak enbor baten azalaren azpian aurkitutako har batzuk eman zizkion jateko (**ñam ñam...**). Oso ondo zaindu zuen txorikumea egun osoan zehar.

Baina ilunabarrean, eguzkia alde egin zuenean, txoritxo **hotzez**

**dardarka**  *Maraka pixkanaka mugituko da atzetik aurrera, eta amaieran*

*azkarrago mugituko da, kolpe handiagoa emateko* hasi zen, Hankaundik  bere  
ahora hurbildu zuen txorikumea eta **putz egin zion suabe-suabe**



berotasun pixka bat emateko eta gaueko hotza habiatik eroritako txorikumea hil ez zezan, erraldoiak bere kolkoan sartu zuen.

Egunak aurrera joan ahala, poliki-poliki, hazten joan zen txorikumea. Koloretako luma polit-politak atera zitzaizkion, eta mokoarekin **orrazten zituen**. Goiz batean, txoritxoak erraldoiaren kolkoa utzi eta hegan egiten saiatu

zen, **astindu zituen hegoak**  (*kaskainetak lau aldiz astinduko dira*)

bi edo hiru aldiz eta erraldoiaren bizkarrean geratu zen. Ez zuen, nonbait, erraldoiaren ingurutik alde egin nahi. Eta horrek poz handia eman zion Hankaundiri



. Hainbeste maite zuen, izan ere, txikitari habiatik eroritako txoritxo hura!  
Egunak joan eta egunak etorri, txoriak eta erraldoia beti elkarrekin ibiltzen ziren **alai**

**eta pozik** bizi ziren biak. Benetako lagunak ziren biak. Habiak egiteko garaia iritsi zenean, txoriak, bere bikote laguna aurkitu zuen eta erraldoiaren franelazko alkandoraren poltsikoan **egin zuten habia** lastoz, goroldioz eta lumatxoz. Eta denbora asko baino lehen, txorikume polit-politak jaio ziren. **Txio eta txio** ibiltzen ziren, goseak zeuden.

Heldu zen uda eta txori txikiak ez ziren gelditu ere egiten Hankaundiren



inguruan jolasean. Hurrengo urtean, berriro udaberria heldu zenean, txori bihurturik zeuden aurreko urteko txorikumeak eta habiak egiteko garaia heldu zitzaien, beraiek jaio ziren lekua aukeratu zuten habia egiteko. Franelazko alkandoraren txoko guztiak abiaz bete ziren; lastoz, goroldioz eta lumatxoz egindako habiak (**txio-txio...**). Jaio ziren txorikumeak eta laster hasi ziren gosez, **txioka eta pioka**. Erraldoiaren txokoetatik eta txoko guztietatik ateratzen ziren

txorikumeak **hegoak astinduz**



. Lepoan eta bizkarrean jartzen zitzaizkion eta baita buruan ere.

Hankaundiren



bizitza erabat aldatu zen, orain, alai bizi zen,

**barrez eta kantari**

txorien txioen artean. Hankaundi



altua da,

**oso altua**. Erraldoia da. Hankaundi



handia da, **oso handia**



Baina orain zoriontsu bizi da, txoriz inguraturik beti.



*Gortina aldi*

*baten mugiaraziko da, agudotik grabera.*

ERANSKINAK 9: Txantiloien bidezko ebaluazioa

<b>HIRU, BI, BAT... EKIN! DISEINU DIDAKTIKOA</b>					
<b>IKASLEA:</b>			<b>DATA:</b>		
<b>1. JARDUERA: ANTZEZLEAK IZAN NAHI DUGU!</b>					
<b>HELBURUAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>JARRERA</b>	<b>ZAILTASUNAK</b>	<b>OHARRAK</b>
- Haien arteko erlazioa sustatzea (elkarekintza)					
- Jolasten ikastea					
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ezberdinak ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					

2. JARDUERA: Mimoak!					
HELBURUAK	BAI	EZ	JARRERA	ZAILTASUNAK	OHARRAK
- Haien arteko erlazioa sustatzea (elkarekintza)					
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					
- Esperimentatzea					
- Gai sakonagoak lantzea					

<b>3. JARDUERA: bugi-bugi gorputza mugi</b>					
<b>HELBURUAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>JARRERA</b>	<b>ZAILTASUNAK</b>	<b>OHARRAK</b>
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					
- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz					

<b>4. JARDUERA: klik hemen, klik han... IKTak beti gelan!</b>					
<b>HELBURUAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>JARRERA</b>	<b>ZAILTASUNAK</b>	<b>OHARRAK</b>
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Esperimentatzea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					

5. JARDUERA: ikusi makusi... zer ikusi?					
HELBURUAK	BAI	EZ	JARRERA	ZAILTASUNAK	OHARRAK
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					
- Gai sakonagoak lantzea					
- Esperimentatzea					
- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz					



<b>6. JARDUERA: do, re, mi... musikarekin adierazi!</b>					
<b>HELBURUAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>JARRERA</b>	<b>ZAILTASUNAK</b>	<b>OHARRAK</b>
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Esperimentatzea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					
- Gai sakonagoak lantzea					

<b>7. JARDUERA: hitz eta pitz txotxongiloekin!</b>					
<b>HELBURUAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>JARRERA</b>	<b>ZAILTASUNAK</b>	<b>OHARRAK</b>
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					
- Autonomia garatzea					

8. JARDUERA: pingui pinguinoa, geroaren hazia					
HELBURUAK	BAI	EZ	JARRERA	ZAILTASUNAK	OHARRAK
- Haien arteko erlazioa sustatzea (elkarekintza)					
- Komunikatzeko hainbat adierazpen forma ikustea eta barneratzea					
- Kritikoki pentsatzen ikastea					
- Gozatzea eta disfrutatzea					
- Gai sakonagoak lantzea					
- Inguruaz eta errealitateaz ohartzea bere iritzia plazaratuz					